

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko otsailak 5

179. zenb.

Saskibaloia

**Lehendakaritzaren
erreleboa**

**Erdu
Ludotekara!**

Etxaburu (San Andres)

Gaur bi bizitzako etxie dou, baine sasoi baten, oin dala 20 urte Iribekapostarrak bertara bizitten etorri zienen, bizitza bakarrakue zan. Honeik Bergarako Torrekuenetik etorri zien. Bertako bizilagunek barrez, Ondarru aldera edo fan zien.

Lehen esandako moduen bi die oin baserrixe daroien famelixak. Alde batekuek Okina Bengoa anai-arrebak die, ama bertakue eta aitte Apotzako Urigaraiakue euenak. Xei anai-arrebatatik 5 bizi die: hiru Mundrauen, Katalina, Eusebio eta Anasasio eta bi Atxabaltan, Mari Karmen eta Juan Mari. Euron aittejaune izen zan basarrixe erosi ebena trozuetan eta, ibillite irabazitteko diruaz. Gaur ez die bertan bizi baine egunero igoten daue baserrixe ganauek gobernetan. Soluek eta ortuek be badarabixie.

Lehendik hona lurre urrittu ein jatie, lenengo fabrika-



zinuatik eta gero bidiek eitteko saldu biherrien topau zielako.

Beste etxekuek Iribekapost Okinatarrak die. Honen aitte bertan jaiakue zan eta ama, aldamenekuen aitten arrebie, Apotzako Urigarain. Fame-lixahonek etxie 1896xen erosi eben. 1906xen erreformak ein zittuen Ignazio Lasa deliniantiek zuzendute. Eurok erabilten euen errentako solo

baten jaso zan Ulgorren lehen pabelloie. Beratzi anai-arreba izen die eta danak bizi die: Jexux, Donato, Tomas, Mertzxe, Sabina, Maria Josefa, Maitere eta Joxe Mari.

Jexux, nausixena, da bertan bizi dana. Basarrixe eruetiaz aparte fabrikan be ibili da lanien; gerra ostien Kutzare-
ran 5 bat urte eta gero Fagorren 25 urte, lenengotariko soziue izenda.



Makilaia ikastaroa
Makilatzen ikasi nahi duzu?
Anima zaitez!

Automakilaia ikastaroa
Otsailak 18, osteguna.

Ordutegia: goizeko 10etatik - Zetara
arratsaldeko 4etatik - 8etara
Prezioa 5.000 PTA. Plaza magatuak.
Informazio gehiago: 79 09 09



AMAGARA ESTETIKA ZENTRUA
Erdiko kale, 54 etxabea ARRASATE



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK



77 05 65

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!




JOSU

TXOKOLATEGIA
KAFETEGIAElkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

Memesa

79 42 22

Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Eredu bila

Gogoan dudan fenomeno fisikoa, uraren zikloarena, alegia, ziklikoa zela esan zidaten eskolan, eta, geroztik zientzi liburuetan irakurrita gero balioztatuta geratu da nire jakindurian egia hau. Ziklikotasun honek garbi uzten du fenomeno hau puntu batean hasi eta bukatu bezain laster berriro hasten dela haserako puntua berrartuz: bata bestearen beharra du, bukaera beharrezkoa da hasierarako eta alderantziz, eta horrela etengabeki...

Giza-fenomenoak bestelakoak dira, ez baitira horren erraz aztertzeak. Errekurrentiak ote dira? Jotzen ote dute atzera historian, izaniko beste eredu batzuren bila berauetan oinarritzeko? Izan daiteke, maiz, entzuna baitugu "historia errepikatu egiten da", "horiek kontu zaharrak dira" eta horrelakoak. Gizartearen erabakietan eragiten duen pertsonak sorburura jotzen badu eredu bila, bere jokaera errekurrentea dela esan daiteke, hots, irten deneko tokira itzultzen da berau osatzeko, aberasteko, aldatzeko,... Baina hau horrela gerta dadin, noizbait, sorburu den giza-jokaerak, moduak, lehenengo aldiz gertatu izanak behar dute izan. Horregatik historian gertakari «originalak» ere badaude, hots, eredu modura hasiera eman diotenak, geroago osatuak, aldatuak, hobetuak edo okertuak izan daitezten.

Historiako liburu gehienek gizonei buruz hitzegiten digute; egunkariak egungo historia egiten diharduten gizonen berri ematen digute, gizonezko baitira bizitzan publikoan dihardutenen gehiengoa. Beraz, historia egin nahi duenak, gizartearen etorkizunean erabakiak hartu nahi dituenak, badu nora jo eredu bila: Napoleonen eredia atsegin ez

bazaio, Picasorena edo Txillidarena har dezake, edo bestela Garcia Lorcarena edo Bernardo Atxagarena, eta zergatik ez Carl Lewisena, edo.... Egon badago noren ereduari jarraitu, nahiz eta norberak bere estiloa erantsi hartutako ereduari. Zentzu honetan, historiako gertakariak edo giza jokaerak errekurrenteak izan daitezkeela dirudi. Baina lege hau arras nahasten da eta deseuzteraino hel daiteke historian aktiboki parte hartu nahi duena gizonezko ez denean. Orduan zein jokaera-eredutan oinarritu? Aukera ez da horren handia, eta, egon daudenak ere, zabalkunde falta dela eta, ez ditugu horren ongi ezagutzen. Bestalde, urratzeke dagoen biderei ekitea zaila da, oso. Halere, esaniko guztiagatik, giza jokaera eredu guztiak sortu gabe daudela dirudi eta dauden ereduetara jotzeari uko egin ez, baina kritikoki bergiratuko bagenie, akaso, hobeto joango litzai-guke guztioi.

MATILDE SAINZ OSINAGA



ARITZ

• ARRASATE PRESS •


Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Arantzasu Loidi. Kazetariak: Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. Publizitatea: Kepa Oliden (77 06 90). Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). Maketazioa: Golo Arana. Erredakzio-kontseilua: Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopti, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astorndoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. Banaketa arduraduna: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo



ZENBAKI
Aholkularitza

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

•••••

Birziklapenaz

SS.8. mailako etikako ikasleak gara. Deba Garaiko Udal Elkartean egon ondoren, birziklapenerako erabiltzen diren kontenedoreei buruz informazioa jaso genuen eta herriari aurkeztu nahian gatozkizu.

1) Nork izan zuen kontenedorea jartzeko ideia? noiz?

Mankomunitateak pentsatu zuen orain dela urtebete.

2) Nork diseinatu zuen? Gasteizko etxe batek.

3) Diru asko inbertitu al da proiektu honetan?

Bai, diru dexente inbertitu da.

4) Zein kanpaina pentsatu duzue jendea animatzeko?

Egunkarian ipintzea pentsatu dugu.

5) Zein egunetan hustutzen da kontenedorea?

Orain arte edozein egunetan, eta aurrerantzean, astelehen eta ostegunetan.

6) Zenbat paper jaso da Deba Garaian? 60.000 kilo orain arte.

7) Paperak nora eramaten dira erreziklatzeko? Papertegietara.

8) Zertako erabiltzen da erreziklatutako papera?

Hainbat gauzatarako erabiltzen da.

9) Uste zena baino paper gehiago jaso da?

Espero genuena jasotzen ari gara.

Espero dugu hau ARRASATE PRESSEN agertzea, es-

kerrik asko zuen laguntza eta arretagatik. Besterik gabe agurtzen zaituztegu:

S.F. IKASTOLAKO
8. AKO ETIKAKO IKASLEAK

•••••

Eutsi enpleguari Zerrajeran

Orain egun batzuk, Korporazioko bozeramaleek adierazpen batzuk egin zituzten, industri inbertsioak egin zituztela eta horrek garbi erakusten zuela industri bokazioaz jarraitzen zutela esaten zutenak.

Adierazpen horiek direla eta, ondorengo puntu hauek argitu behar ditugu:

- Inbertsio horien %60a (2.250 milioi diote beraiek) Roneo Ucemen egin dute. Baina enpresa lekuz aldatu zutela eta lehen Roneo zegoen tokian, herriaren erdigunean, 170 luxuzko etxe eta gutxi gora-behera 3.000 milioi pezetako garajeak egingo dituztela esatea ahaztu zitzaizen.

- Transformatu Metalikoetan 585 milioi pezeta inbertitu dituztela diote, baina esan beharra dago oso gutxirako balio izan dutela; izan ere, inbertsioak egin zituzten 4 sekzioetatik 2 itxita daude eta hirugarrena aurten itxi nahi dute.

- Beste horrenbeste esan daiteke Faman inbertituriko 119 milioie buruz. 30 laguni lana emango ziotela esaten zuten eta hilabeteak dara-

matza itxita.

- "Industri bokazioaz" jarraitzen badute, nola uler daiteke Olateko Saltoa Oñatiko Udalarari 850 milioi pezetan saltzea? Eta zein salduko eta Union Cerrajera ohiaren sekzioerik errentagarriena.

- Zigarrolako zerrategi zaharraren terrenoekin, zenbateko irabaziak izan dituzte?

- Union Cerrajera ohiak Bergaran eta Arrasaten egun hartzen dituen 130.000 metro karratuko terrenoetan egiten jarraitu nahi duena espekulazio hutsa da.

Industri bokazioa sektore honetan lanpostuak gordez edota sortuz erakusten da, eta errealitatea guztiz bestelakoa da. 424 lanpostu suntsitzeaz gain, Union Cerrajera zatitu ondoren eta plantila erdira jaitsita sortutako bi lantegietak bat itxi gura dute.

Industri bokazioa al da eskabideak izan arren sekzioak banan-banan itxia?

Lanpostuak suntsitzen gastatu den dirua inbertsioen barruan sartzen al da?

UCEM Korporazioak Transformatu Metalikoak-eko (104 lanpostu) eta UCEMgo (90 langile) egungo enplegua gordetzea posible eta bideragarria dela adierazten dugu; baina horretarako industri bokazioa behar da. Union Cerrajera ohiaren aktiboak Arrasaten inbertitu behar dira, lanpostuak sortzeko eta ez hemendik kanpo espekulazio-negozioetan.

ARRASATEKO CCOO, LAB ETA ESK

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK


77 05 65

Kaleko kartelak eta pintadak debekatu egin beharko lirateke?



**Cristina Corral
Langabetua
(21 urte)**

Toki konketuak ipini beharko lituzkete. Ondo iruditzen zait edozein propaganda egitea, baina toki konketuetan, ez Portaloi erdian.



**Feliziano Etxeberria
Jubilatua
(63 urte)**

Kartelak egotea ondo iruditzen zait, beti egon izan dira eta, gainera badaude jartzeko tokiak.




**Itziar Agirrezabal
Eroskiko langilea
(36 urte)**

Nire ustez ez lirateke toki guztietan jarri behar, toki batzutan oso gaizki geratzen dira eta. Informatzea edo protesta egitea ondo iruditzen zait, baina ez kartelak edozein tokitan jartzea.



**Eduardo Jauregi
Ingurugiro ikaslea
(25 urte)**

Espresio mota bat da eta jendeak ez du non ipini edo non agertu. Batzutan ez da ondo ikusten, eraikuntza batzuetan... beharbada kontrolatu egin beharko litzateke.



**Eduardo Landa
Ikaslea
(21 urte)**

Txarto iruditzen zait horretako zikinkeria, leku konketuak jarri beharko lirateke adierazpenak egiteko.



**Belen Carrascal
Etxekoandrea
(26 urte)**

Debekatu ez, baina kontrolatu egin beharko litzateke, toki konketu batzuk aukeratu, hor jendea nahi duena jartzeko askatasuna emanda. Herria garbiago egongo litzateke.



**Ricardo Jimenez
Gelmako langilea
(44 urte)**

Hormak pintatzea oso gaizki ikusten dut, horretarako toki egokiak aurkitu beharko lirateke.



**Maria Isabel Jimenez
Etxekoandrea
(47 urte)**

Debekatu edo kontrolatu, ez zait ondo iruditzen kartelak edozein tokitan jartzea, gehiegi daude eta.

ESKAINNTZA
Betaurrekoak
2.500 PTatik aurrera!



GARAGORRI
OPTIKOAK

Iturriotz, 29
Tfnoa: 79 16 98
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13
Tfnoa: 76 13 73
BERGARA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualatoroa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdia) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak 45 87 44

Udalzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasak 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 5
 Egunez: Azkoaga, Ferrerías.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

Larunbata 6
 Egunez: Español, Iturriotz.
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

Igandea 7
 Egunez: Corcuera, Musakola.
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

Astelehena 8
 Egunez: Irizar, Erguin.
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.

Astearte 9
 Egunez: Amezua, Santamaina.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

Asteazkena 10
 Egunez: Ruiz, Maala.
 Gaeuz: Camacho, Oxirondo.

Osteguna 11
 Egunez: Morales, San Andres.
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.

5 OSTIRALA

ZINEA

“El maestro de Esgrima” (7.10)

ROCK KONTZERTUA

“Heriotza” eta “Zakarrak” taldeen rock kontzertua. Sarrera: 400 PTA. Gaueko 9etan. Arrasateko Gaztetxean.

POP ROCK KONTZERTUA

“Doctor Deseo” taldearen pop rock kontzertua. Gaueko 11etan. Elorrioko Kafe Ate-neon.

DIPOSITIBA EMANALDIA

“Inurrategitarrak Everest-en” diapositiba emanaldia. Arratsaldeko 7etan. Monterroneko Aretxean. Besaide Mendizale Elkarteak antolatu-ta.

SANTA AGEDAKO JAIK

Afari Herrikoia Jentilola Elkartearen gaueko 9etan. Ondoren, Gorrotxategi eta Mendizabal bertsolariak eta Zabale anaiak alaituriko saioa goizaldera arte.

SANTA AGEDA JAIK

Gaur bertan hasiko dira Santa Ageda auzoan jaiak. Arratsaldeko 6etan hasiko dira, auzoko meza batekin eta bertako koroak parte hartuta. Ondoren, afari herrikoia egingo da Jentilola Elkartearen eta 10.30ak aldera Gorrotxategi eta Mendizabal bertsolarien alaituriko saioa hasiko da. Larunbatean haurrentzako jaialdia, marrazki erakusketa, “Txorronpio eta Pantxi” txorrongilo taldearen emanaldia, auzoko abesbatzaren kantaldia baserri eta “Kaixo” taldeak alaituta dantzaldia izango ditugu. Igandean, Jentilola Elkartearen Pariseko bidaiaren zozketa egingo da eta meza osteko pintxo eta saldarekin amaituko dira jaiak.

6 LARUNBATA

ZINEA

“Sister Act” (5, 7.30,10)

BAZKARIA

“92a bukatu da baina 93an arazo berdinek jarraitzen dute” le-mapean bazkaria. Eguerdiko 2etan, Gaztetxean.

ROCK KONTZERTUA

“Pop crash colapso” eta “Wipe out skaters” taldeen rock kontzertua. Sarrera: 400 PTA. Arrasateko Gaztetxean.

SANTA AGEDAKO JAIK

Goizeko 12etatik 13arte Txorronpio eta Pantxi txorrongilo taldearen saioa. Eguerdiko 2.30etatik iluntzerarte auzoko abesbatzaren saio bere zaindariaren omenez abes-tuz.

ROCK KONTZERTUAK GAZTETXEAN

Asteburuan bi kontzertu izango dira Gaztetxean. : gaur “Heriotza” eta “Zakarrak”; bihar, berriz, “Pop crash colapso” eta “Wipe out skaters”. Biek ere, 400 PTAko sarrera izango dute eta gaueko 9etan izango dira. Horretaz gain, biharko bazkari bat antolatu dute, “92a bukatu da baina 93an arazo berdinek jarraitzen dute” le-mapean eguerdiko 2etan.



7 IGANDEA

ZINEA

“Sister Act” (7,9.30)

“AGUR IRUDIARI” ERAKUSKETA

Agur irudiari erakusketa ikusteko azken eguna. Arratsaldeko 6etatik 8etara. Monterron Kultur Etxean.

PUBLIZITATE ETA KOMUNIKABIDEETAKO HIZKUNTZA

Publizitate orri eta idatzitako komunikabideetan erabiltzeko hizkuntzari buruzko erakusketa. Eguerdiz eta arratsaldean. Sebero Altubenean.

SANTA AGEDAKO JAIK

Eguerdiko 2etan, Jentilola Elkartearen Pariseko Bidaiaren zozketa eta jaien amaiera.

PUBLIZITATE ETA KOMUNIKABIDEETAKO HIZKUNTZA

AEDk ikerketa baten bidez, Arrasateko buzoietan jasotako publizitate orrietan eta idatzitako komunikabideetako hizkuntza erabilera aztertuko du. Guzti horren berri emateko erakusketa antolatu du datorren iganderako. Eguerdiz zein arratsaldean egongo da zabalik Sebero Altubenean.

8 ASTELEHENA**ZINEA**

"Sister Act" (7,9.30)

GITARRA IKASTAROA

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan gitarra ikastaroa antolatu dute. Urtarrilean hastekoa zen ikastaro honek atzerapena izan du ikasle falta dela eta. Interesatuok, jakin ezazue maila guztietako klaseak emango direla, ordutegi desberdinetan.

**IZOTZ ESKALADA IKASTAROA**

Besaide Mendizale Elkartek izotz eskaladako ikastaroa antolatu du. Gavarnien izango dira klaseak, otsailaren 6 eta 7an edo 13 eta 14ean. Asteburu bat pasatzeko hauek dira prezioak: Besaideko bazkideentzako 7.000 PTA, bazkide langabetuentzat 5.000 PTA, bazkide ez direnentzat 8.500 eta bazkide ez diren langabetuentzat 7.000 PTA. Bestalde, aurtengo mendi federatu txartela atzerrirako suplementoarekin edukitzea beharrezkoa da. Izena emateko epea 9ra arte dago zabalik.

9 ASTEARTEA**ZINEA**

"Sister Act" (7,9.30)

HITZALDIA


"Indigenen mundua" hitzaldia. Emalea: Rosamel Millamán, "Ad Mapu"ko ordezkaria eta indiar maputxea. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

HITZALDIA: INDIGENEN MUNDUA

Astearterako, Askapena eta Komite Internazionalistak taldeek indigenen munduari buruzko hitzaldia antolatu dute. Hizlaria Rosamel Millamán indiar maputxea izango da, ONUren aurrean Ipamerikako indigenen giza eskubideen ordezkaria. Arratsaldeko 7etan izango da Monterroneko Areto Nagusian.

10 ASTEAZKENA**IZOTZ ESKALADA IKASTAROA**

Izotz eskalada ikastarorako izena emateko azken eguna. Besaide Mendizale Elkartean.

**APAITZGINTZARAKO BOKAZIOAREN ASTEA**

Astelehentik hasita apaitzgingintzarako bokazioaren astea burutuko da bailara osoan. Arrasaten konkretuki bi ekintza egongo dira. Alde batetik, ostegunean arratsaldeko 8etan Mankomunitate osoari zuzendutako otoitzaldia izango da eta larunbatean berriz, gazteentzako bilera berezia gai hori joratzeko. Horrez gain, igandean eta aste honi amaiera emateko, meza bereziak izango dira Arrasateko eliza guztietan.

INGURUAREKIKO INPAKTU IKASKETAK

Bihar otsailak 6 hasiko da Bergarako UNEDn "inguruarekiko inpaktu ikasketak eta informazio geografikoaren sistemak" izeneko kurtsoa. Bihar "inguruarekiko inbentarioa" izeneko hitzaldia emango da. Jose Miguel Edeso Fito geomorfologian doktore izango da emalea. Datorren martxoaren 6a bitartean hitzaldi teknikoak izango dira eta martxoaren 13tik aurrera praktikoak.

11 OSTEGUNA**ZINEA**

"La bella y la bestia" (7,9.30)

YOGA HASERAKO IKASTAROA

Yoga haserako ikastarorako izena emateko azken eguna. Izena ematea: Iñarra Pasealekuko Zentruan edo telefono honetan: 79 35 76.

UNIBERTSITATERAKO ORIENTABIDEA

Euskal Herriko Unibertsitateari buruzko hitzaldia. Almen, Institutua eta San Vitorreko 4. mailako ikasle eta gurasoentzat. Arratsaldeko 6etan San Vitorren.

APAITZGINTZARAKO BOKAZIOAREN ASTEA

Mankomunitate osoari zuzendutako otoitzaldia. Arratsaldeko 8etan. Arrasateko San Juan Parokian.

AEKn MATRIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK

Arrasateko ERDU-AEK Euskaltegiak zabaldu du matrikula egiteko epea. Klasean datorren otsailaren 15ean hasiko dira eta urrats guztiak egongo dira, 1etik 8ra, Alfabetatze, eta EGA ikastaro bereziak ere bai. Interesatuok Garibai Etorbiko Euskaltegitik pasa zaitezke, goizeko 10etatik 14ra eta arratsaldeko 5etatik 9etara. Informazio gehiagotarako telefono honetara deitu: 77 03 69



“Literatura nahikotxo irakurtzen da eta idazlea ta irakurleen arteko harremana oso estua da; hori beste lekuetan ez da ematen. (...) norberak sentitzen ez duena ezin dio besteari kutsatu, irakaskuntzan oso gaizki tratatu da literatura orokorrean eta poesia bereziki. Bekatu asko egin da, adibidez hamalau urteko gazteei Garoa irakurtaraztea. (...) Nik beti esan dut hiztegia idazleentzat oso gauza maitagarria dela, baina irakurleentzat gorrotagarri egiten dela; oreka lortu behar da”.

Gerardo Markuleta 93-1-29

egin

“Herri Batasunako gizon emakumeok eta euskal gizartearen gehiengoak ez du zalantzarik Alcalá Hotela Estatuaren goi mailako instantzien aparatuek diseinatutako krimen baten eszenatoki izan zela esatean. (...) Komentzituta gaude, gaur aktualitatea hartu duen bakearen aurkako atentatu harengatik epaiketak nekez eseri araziko dituela akusatuen aulkian krimenaren benetako erantzule eta eragileak. Zoritxarrez, Felipe Gonzalezek GALaren sarearekin Estatuak duen inplikazioaren inguruan esan zituen hitz profetikoak (‘ez dago frogarik eta ez da egongo ere’) konfirmatu baino ez dira egingo azken sententzian. (...) ‘Demokrazia espainiarraren’ defentsa, ikerketa, egia eta justiziaren gainetik egongo da”.

Roberto Sampedrok 1993-2-1

egin


“Meatzerreka ez dago Arrasatetik urrin, gertatzen dena da Mondragoetarrak Meatzerreka gutxi ezagutzen duela, edo beharbada ezagutu bai, baina ez da beste auzo batzuk bezain popularra. Zoritxarrez, askorentzat gurea Kanpazarrera bidean dagoen auzoa baino ez da”.

Jose Mari Langaran,
Meatzerrekako auzoalkateak

ATB

Ondo deritzozu jubilatuek kuota ordaintzeari?

Aurten Arrasateko Jubilatuek Etxeetan 250 PTAko kuota ordaindu dugu eta niretzat normala da hori. Jende asko igoeraz hitzegiten du, kuotak asko igo duela, baina bizimoduak igozten badu, normala da horrek ere igoetzea. Egia esan guk ez dugu diru larregi jasotzen, baina urteroko kopuru hori ematea ez da asko, eta gehien bat sinbolikoa da, laguntza moduan, kontrolgisa, hemen zenbat jende ibiltzen den jakiteko... hori bai, gehiegi igo ezker, laster egingo genuke protesta.



Jesus Martinez Abarrategi
Jubilatua

Hala ere, badago kuotarik ordaintzen ez duen jendea, baina gero ez dute aukerarik izaten barran jubilatuek prezioa izan edo bazkariaren zozketan sartzeko. Lehen ordaintzen ez zenean, gauza xebreak ere gertatzen ziren, bazkarira joango zirela esan eta gero agertu ez; orain, aurrez ordainduta dagoenez, baiezkoa emandako gehienak joaten dira eta ez da hainbeste janari sobratzen.

Kuotaren zenbatekoa jubilatuek etxeko juntak proposatzen du, baina gero asanbladetan onartu beharra dago, bestela ezin du aurrera egin. Egia esan, asanbladetan ez da jende gehiegi egoten, neu barne, luzeegi izaten dira eta. Kuota ordainduta, barrako eskubi-deak, bidaietan parte hartzeak edo bazkarirako zozketan sartzekoak gehiago izateaz gain, herriko jubilatuek etxe guztietan egoteko aukera ematen du, Musakola, Santamaina edo Uribarrikoan Abaroan bezala; baita Aretxabaleta edo Bergarakoan ere. Izan ere, kuotaren zati bat Gipuzkoako Jubilatuen Elkartera joaten da.

LORATEGI Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 79 04 67

Zure kafetegia!

A E

- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkia

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Informazioa nahi baduzu zure esku duzu gure laguntza.

“Bezzeroaren telefonoa”
901- 20 20 20

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.

IBERDROLA

Goikobaluko Batzar Orokorra

Hogeitamarren bat lagunek hartu zuten parte Goikobalu Abesbatzaren urteko Batzar Orokorrean, Gazteluondo ikastolako aretoan. Diru kontuak onartzeaz gain, 600.000 PTako defizita barne, batzarrean lehendakari berriaren hautaketa egin zen, Mikel Arregi berau. Zorra ordaintzeko, diru-iturri berriak aurkitu beharko ditu Goikobaluk.



Plenoan ez zen moziarik eztabaidatu

Eudelek propagandari buruz duen arautegiaren onarpena eskatuz, ez zen eztabaidatu sozialistek eramandako mozioa. Pedro Mari Ruiz de Azua, EAko zinegotzia, Plenoan ez zegoenez eta mozioan bere izena aipatzen zenez, EA eta HBk mozioa mahai gainean uztea erabaki zuten, EAJ-PNVren abstentzioaz eta PSOEn aurkako botuekin. Astelehenean, berriz, Pako Garcia zinegotzi sozialistak Alkateari Eudelen mozioa aztertzeko Pleno berezi batetarako deialdia egin zezala eskatu zion.

Bestalde, San Viator eta San Frantzisko Xabier ikastolekin hitzarmenak sinatzea erabaki zen, La Asunción eta Ferixalekuko obrak egiteko; ordainean, Udalak ikastola bien lokalak erabili ahal izango ditu.

Giro ona Gaztetxeko kontzertuan

Piperrak eta Vomito taldeek larunbatean Gaztetxean eskaini zuten kontzertuan, denbora aldetik nahiko motz gelditu bazen ere, giro beroa nagusitu zen. Kontzertua hasi aurretik, bi neska gaztek ezusteko txalaparta saioa eskaini zuten, talde biei nolabait atea irekiz. Gutxi gorabehera 250 pertsonak entzun zuten kontzertua.

Emakumeen Asanbladaren postal bidalketan jende gutxi

Emakumeen Asanbladak Bosniako emakumeen bortxaketen aurka antolatutako postal bidalketan jende gutxi hartu zuen parte. Bildutako postalak kanpo ministraritzara bidaliko dira, bortxaketen aurrean zerbait egin dezaten.

San Valerio jaiak Meatzerrekan

Auzoko jaiak zirela eta, jende askok bisitatu zuen Meatzerreka asteburu osoan zehar. Jaiak ostiralean hasi ziren, jubilatuen omenez egindako auzo-afariaz; bertan Arantzazu Loidi, Jon Iñaki Izarzelaia eta Aitor Sarasua bertsolariak izan ziren. Larunbat arratsaldean mus txapelketa, 24 bikoteren partaidetzaz; irabazleak, Ojala eta Diaz de Gereñu arrasatearrak. Igande eguerdian amaitu ziren

jaiak, baina aurrez txirrindulari lasterketa eta meza, Goikobalu abesbatzarekin. San Valerio ermita jendez gainezka eta Goikobalukoak kanturako gogoz, mezatan, ermitaren kanpokaldean eta soziedadean ere kantatu zuten eta. Horrenbestez bukatu ziren jaiak.

Lanbide Hastapeneko ikasturte hasiera

1993. urteko ikasturtea zabalduz, Deba Garaiko 75 gaztek Lanbide Hastapene-

ko ikasketen inaurazioan izan ziren joan den ostiralean. Aurtengo ikasturtea urriaren 22an bukatuko da eta eskolak goizeko 8.30etatik eguerdiko 2.30etara izango dira. Mekanika, elektrizitatea, aroztintza, sukaldaritza, ofimatika edo artisautzari buruzko edukiak jasotzeko aukera izango dute gazteek. Lanbide hastapeneko ikasketen helburua, eskola utzi duten guztiei formazio zabala eskaintzea da; bertako ikasle izateko, 16 edo 17 urte izan, langabezian egon eta Deba Garaian enpadronatuta egotea eskatzen zen.

JAIOZAK
• Asier Elgezua Zulueta. Otsailaren 11n.
EZKONTZAK
• Jose Francisco Telleria Diaz & Ines Sandia Sanchez. 29an. Zibilez.
• Jose Jabier Agiriano Mollor & Miren Arantxa Perez Guridi. 30ean. Elizaz.
• Octavio Toste Perez & Susana Andres Valdez. 30n. Elizaz.
HILDAKOAK
• Iluminada Amurrio Rozas. Urta-rrilaren 27an. 78 urte.
• Manuel Romero Bernardo. 27an. 86 urte.
• Juana Arregi Zubia. 28an. 85 urte.
• Victor Arana Berasategi. 28an. 78 urte.
• Abelino Martin Martinez. 29an. 65 urte.
• Eugenio Etxebarria Erostarbe. 29an. 84 urte.
• Manuela Moto Sierra. 30n. 77 urte.
• Julian Murguzur Azkarate. Otsailaren 1ean. 83 urte.

TXOKO TABERNA
Cure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak
 Otorora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

EsLu
ileapaindegia
 Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE




JUANITO BARBERÁN *

Publizitatea, herriko kronikak: nola jasotzen dugu

Zein hizkuntzatan heltzen zaigu publizitatea buzoira eta herriko albisteak idatzizko komunikabideetatik? euskararako behar duen tratamendua jasotzen al da?

Euskararen normalkuntzarako publizitateak duen garrantzia jabetuta, AEDK azken urteotan arlo hau aztertuta neurtzeari ekin dio. Jarraipen-lan honen buzoirata heldu zaigun publizitatearen euskara erabileraren bilakaera positiboa dela antzematzen bada ere, (1991n euskaraz %0, bicara %14, eta erdaraz %70,3) (1992an %2,1, %28,4 eta %66,9 hurrenez hurren), oraindik ere gure etxetan jasotzen ditugun 10 iragarkiatik ia ia 7 erdara hutsen izaten direla baieztadaiteke. Arloka, euskara gehien erabiltzen dutenak, besteak beste, hauek dira: Admi-



karaz jasotzeko ezinbesteko eskubidea du. Hizkuntz eskubideen aldetik ere euskarari tratamendu duina ematea, erdarari bestekoa behintzat, euskararen normalkuntzarako gutxieneko abiapuntua baita.

Euskara guztiona denez, denok duakagu zer esan eta zer egin, bereizkeria honekin bukatzeko. Iragarki egin duen entitatearen bezero bagara, arduradunari euskaraz edo bietan gutxienez bere publizitatea bidal dezala eskatuz, ekarpen handia egingo dugu.

Era berean, AEDK Arrasateko albisteei buruzko idatzizko komunikabideetako hizkuntz erabilerareko neurketa egin ondoren, aurreko urteetan bezala ARRASATE PRESS zori ondu egin behar du bere jarduerara osoa euskaraz egiten duelako. *Egin eta Deia* egunkariak zori ondu egin behar ditugu 92an emandako aurrerakadarengatik, euskarari tratamendu sinbolikoa emateko komunikatzeko tresnatzat hartzera pasa direlako.

Neurketa honen arabera, berriz, suspentsio borobila DV eta *El Correo Español* egunkarietara (88an euskaraz DV %0,7 *El Correo* %1), 92an DV %3,3, *El Correo* %1,3) euskarari ematen dioten tratamendua sinbolikoa izatera ere ez baita heltzen.

Oraindik herriko informazioari ematen ez duenez, neurketa honetatik kanpo geratu da Euskaldunon Egunkariaren baina eguneroko informazioa euskaraz jasotzeko aukera aparta da.

“Arrasaten oraindik erdara da nagusi bi arlo hauetan”

(*) AEDKO PARTAIDEA

USTEAK USTE

OBRA BAIMEN BARIK?
Filmeak iragartzen zituen markesina batek, erori ondoren, sei pertsona hil ditu Madrilen.
Telebistan ziotenez, baimen barik andamioa jarri eta zama eutsi ezinik erori zen markesina. Baimen ezaz gain, argi dago zineko ardura-dunek ez ziotela jaramonik egiten markesinaren egoerari, ustelduta baitzegoen. Baimen eta mantenimendu ezaren argudioak aipatuz, ikusnuten telebista kamaren aurrean Madrilgo Udaletxeko Hirigintza Batzordeburua eta Alkatea.
Ez dakit Arrasateko eraikuntzaren bat, baikol, tuberia, teiatu etab. hain egoera txarrean egongo den, ez dut uste. Hala ere, egoera kezagarri bat nagusi da: jende askok, ez ordaintzearren, noski, obrak baimen barik egiten ditu. Udalak ezer gutxi egin dezake horren aurrean, baimen barik obra egitearren jartzen den isunaren zenbatekoa handitzeko gaitasunik ez dauka eta. Beraz, herritarren kontzientzia aipatu behar. Udaletxeko ordezkariak begiak zabalik izan beharko dituztela ahaztu barik.
Hala ez bada, edozein egunetan Jose Mari Loiti eta Xabier Zubizarreta telebistan ikusiko ditut, baimen eta mantenu ezaz berba egiten.

BEÑARDO KORTABARRIA

Lore Iurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17 ARRASATE Tfnoa: 79 20 57

ARRASATE PRESS

ARRASATEZAK

77 05 65



Erakusketa jartzeaz gain, etxez etxe banatuko dira neurketaren datuak

AEDk euskara eta publizitatea neurtu

Azken bi urteetan bezala, etxeetan jasotako publizitatean erabiltzen den hizkuntzaren neurketa egin du AEDk. Aurten 381 orri jaso dira, 240 Arrasateko entitateek bidalitakoak. Neurketaren datuak ikusi ondoren, apurka-apurka erdaraz eta euskaraz bidaltzen den publizitate orrien kopurua sendotuz doala nabaritzen da, aurreko bi urteetako %14 eta %22aren ondoan, aurtengo %28a agertzen baita; edozein modutan, erdeara hutsean bidaltzen den publizitatea %70a da. Arrasatek bidaltzen den publizitateari dagokionez, %40a bietara bidaltzen da eta alde horretatik 93rako, Arrasaten euskaraz edo bietara bidaltzen den publizitateak erdaraz egiten dena gainditzeko erronka aipatzen zuten AEDkoek.

Bestalde, Arrasateko berriak emate-rakoan erabili den hizkuntzaren neurketa ere egin dute AEDkoek. Datu horien arabera,

Arrasate Press, Egin eta Deiak zorionak jaso dituzte; El Correo Español eta El Diario Vasco egunkariei, berriz, suspentsoa eman zaie. Zentzu honetan, herritarrek ere zer esanik badutela uste dute AEDkoek "Euskara guztiona denez, guztiok daukagu zer esan eta zer egin. Ez al zaigu inporta, Arrasaten gehien saltzen den egunkariak gure hizkuntzari hain tratamendu eskasa ematea? edo herriko supermerkatuak handienak egiten duen publizitatean euskarari tratamendu testimonial hutsa ematea?" zioten.

Datu batzuen zein besteen berri emateko, AEDkoek diptikoak etxez-etxe banatuko dituzte, eta igandean, eguerdi aldera, jasotako publizitate-orri guztiekin erakusketa jarriko da Sebero Altube plazan. Azkenik, urtean zehar publizitatea egin duten guztiei, gutun bat bidaliko zaie, datuak eman eta euskararen presentzia areagotzeko eskatuz.

Ur eta zabor tasak

Martxoaren 31a arte 1992ko 4. hiruhilabeteko Ur eta Zabor-tasaren ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko aukera dago. Aipatutako epea pasa ondoren, ordaindu gabe dauden ordainagiria %20ko gainkargua kobratuko zaie.

Telefonikak lekua nahi Murugainen

Telefonikak Murugainen telefono ibiltarientzat estazio-oinarria jarri nahi zuela eta, Arantzadi Zientzia Elkarteak ez jartzeko gomendioa egin dio. Arantzadi Elkarteak dioenez, telefonikak egin nahi dituen lanak Murugaineko aztarnategi arkeologikoa hondatuko luke. Murugaineko aztarnategia, Kristo baino mila urte lehenagokoa da, Gipuzkoan bakarrenetarikoa.

Akatsak Alai Zineman

Joko eta Ikuskizunetarako Zuzendaritzak Udalaritik bidali dion txosten batek dioenaren arabera, suteen aurkako babes-sistema eta arrisku irteerek ez dute nahi beste segurtasun eskaintzen Alai Zineman. Hamabost egunen barruan akatsak konponbidean jartzen ez badira, Jaurilaritzako Joko eta Ikuskizunetarako Zuzendaritzak beharrezko neurriak hartuko ditu.

MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Udalerrien ordenamendua arautuko dituen aurreproiektua eztabaidatuko da ihardunaldietan.

Lurralde antolaketari buruzko ihardunaldiak Mankomunitatean

Jaurlaritzak lurralde-antolamendurako aurkeztu dituen irizpideak Deba Garaian izan dezaketen eragina aztertzeko, asteazkenean Mankomunitate mailako ihardunaldien lehen saioa burutu zen Oñatin. Lurralde-Antolamenduak, udalerrien geroko hirigintza-bilakaeran eragin nabarmena izango dutela eta, antolatu dira aipatutako ihardunaldiak. Lurralde-Antolamenduaren azterketa egiteko unea aproposa da, martxoaren amaierara arte jendearen aurrean izango baita irizpideen aurrelaburpena, adostasunik ez dagoen kasuetan alegazioak aurkezteko.

Aste honetako saioan 1976ko Eskualde-Plan zaharra eta une honetan lurralde-anto-

lamendurako prestatzen ari diren figura ezberdinak azaldu ziren. Bigarren saioan, aste honetan azalduakoa eztabaidatuko da. Xabier Unzurrunzaga Lurralde-antolamenduko katedratikoa, J. L. Morales abokatua, Jose Ramon Negueruela hirigintza-arkitektoa eta Jose Luis Azkarate, Mankomunitateko hirigintza-arkitekto ohia arituko dira gaiak azaldu eta eztabaidak moderatzen.

Ihardunaldietan Mankomunitateko Udaletxeetako hirigintzako teknikari eta zinegotziek hartzen dute parte, 60ren batek. Ihardunaldiak bukatu eta gero, ikusi egin behar alegazioak udalerriz udalerriz edo Mankomunitate bezala aurkezten diren.

Irakaslea ukatu HHLri

Helduen Heziketarako Ikasketa Zentruan sartzeko ikasle zerrenda luzea izan arren, Hezkuntza Delegazioak HHLnek irakasle bat gehiago ekartzeko eskaerari ezezkoa eman dio. Helduen Heziketarako Zentruan gaur egun, 220 ikasle daude eta goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetarako 5 irakasle bakarrik. Bestalde delegazioaren ezetzak, helduen heziketan euskararen aurrerapausuak oztopenen ditu, irakasle berriak ikasgai batzuk euskaraz emango bailituzke.

Aurrekontua akaso hile bukaerarako

Ino Galparsoro Hazienda Batzordeburuak zioenez, 1993ko Udal-aurrekontuak prest izango dira seguruen otsailaren bukaerarako edo martxoaren erdi-alderako. Batzorde desberdinak orain aurrekontuak prestatzen ari dira; behin hori egin ondoren, egutegi bat ezarri eta eztabaidak hasiko dira, ahal izanez gero akordiotara iritsi eta aurrekontua Plenora eramateko.

zortzi

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

Otsailak 6
LARUNBATA
Arrasaten
irekiko dugu
ileapaindegi berria!

Ferrerias, 35
Tfnoa: 76 04 14
ARRASATE

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa
Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotritzitatea eta
hizkun berreziera)
Logopedia
Laguntza terapia
Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

UXARTE

**Kafetegia,
gozotegia**


Gauetz irekita!!
JO TA KE!!

Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK

77 05 65



Ingurugiroan eragin handia du San Josepeko harrobiak.

San Josepeko harrobia ixteko hitzarmena nahi

Ingurugiroan eragin nabarmena duela eta, harrobia ixteko hitzarmena sinatzekotan dira Udala eta San Josepe Kanterako ardura-dunak. Hitzarmenak aurrera egingo balu, lanak geldiarazi eta harrobia berehala itxiko litzateke.

San Josepeko harrobiak ingurugiroan duen eragina, Kanpazar eta Kobatekoek dutena baino handiagoa dela ikusi da ikerketa batean. Kobateko harrobiak ingurugiroan duen eragina aztertu ondoren, tramite guztiak bete eta legearen barruan lan egin ahal izango du; Kanpazarko harrobia, berriz,

azken tramiteak betetzen ari da, baina ez du legeak eskatzen dituen arauak betetzeko arazorik izango.

San Josepeko harrobia ixteko akordioa gauzatzen bada, lurraren izendapen berria egin beharko da, seguruen lur-industrialaren izendapena jartzeko. Edozein modutan, adituek diotenez, gutxienez hamar bat urte beharko dira harrobiaren inguruak behar bezala gera daitezen, eta dagoeneko hasi dira rokodromoren bat jarri, inguruak berlandatu edo pasealeku bihurtuko ote duten zurrumurruak.

Ikerlanen 1991. urtearen antzera

Ikerlanek, beste enpresek bezala, zailtasunak izan zituen 1992. urtean, baina hala ere 1991. urtean lortutako diru-sarrera kopuru bera lortu zuen, 1.027 milioi PTA. Eusko Jaurlaritzaren finantziatortik iaz aurrekoan baino %27 gutxiago jaso bazuen ere, Ikerlanek ikerketa proiektuetan aurreko urtean baino %14 gehiago lortu zuen, 671 milioi guztira. Bata besteagatik, azkenean parra samar.

Fagor Electrodomesticos Frankfurt eta Coloniara

Fagor Electrodomesticos-eko Minidomesticos-ek Frankfurtuko Ingurugiroa 93 ferian parte hartuko du, lapiko eta baterien katalogo osoa aurkeztuz: Rapide Express izeneko lapiko berria eta Berlin bateria berria aipagarrien. Coloniako ferian, berriz, bi metrotako hozgailuak, TDDO junior labe txikia eta garbigailu-lehorgailua aurkeztuko ditu.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.


Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Txutxumutxuak



Meatzerrekako jaiak giro ezin hobean burutu ziren pasa den asteburuan. Argazkietan, larunbatean izan ziren umeen jolasak eta

mus txapelketa jaso ditugu. Bi hauean nagusiak zein umeak ondo pasatzeko aukera izan zuten eta hor dago froga.



Pasa den asteazkenean San Blas eguna ospatu zen eta ohitura zaharra jarraituz, janariaren bedeinkapena egin zen Arrasateko eliza guztie-

tan. Horretaz gain, San Blaseko opil famatu eta goxoak salgai egon ziren gozodenda guztietan eta hainbat etxetan egin ere bai.

Dirudienez Arrasateko Polikiroldegiko kuotak asko garestitu dira azken urte honetan. Horrez ondorioz, jende asko inguruko herrietako kiroldegietara joaten da. Inguruko herri horietariko bat Aretxabaleta dugu. Jakin izan dugunez, 45 arrasatearrek eman dute izena bertan eta joan den urtetik asko igo da kopuru hori.



Institutoko bigarren kurtsokoek Abadino aldean pasa zuten asteazkena. Izan ere, egun handia izan zen Abadinson eta feriaren inguruko gaiak aztertzeaz gain, mundial pasa ei zuten.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK

XATHO
ANGELA UNZUETA
Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

ARAMAIO okindegia
Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

Santageda bezperan, ohi denez, Santageda koruak baserriz baserri eta kalez kale ibili ziren. Txapela buruan eta albarkak oinetan, ostegun normal bat alai bihurtu zuten. Ohizko koruez gain, aurten AEDko gazteek ere, irten zuten. Batzuk zein besteek lortutako dirua, saku berera!



Copenhage Business Schooletik etorritako 20 daniarren bisita jaso dute Saiolanen. Pasa den larunbatetik arrasatear eta daniarrez osatutako

lantaldean, Hirugarren adina, ingurugiroa eta industri agroalimentarioa bezalako gaiak aztertu dituzte.

Txufxumufxuak

IZEN PROPIOAK

● **Edurne Marañon**, 34 urteko mondragoetarrak, "Estudio de satisfacción del usuario en atención primaria" izeneko tesia egiteagatik FISek (Fondo de investigación sanitariak) emandako beka lortu du. Enfermeria Donostian ikasi eta gaur egun ATS bezala egiten du lana Anbulategian.

● **Mikel Arregi**, 27 urteko arrasatearra da Goikobaluko lehendakari berria. Artearen historia ikasi eta Emakunden eta San Frantzisko Xabier Ikastolan ibili da lanean.

● **Itxaro Artola**, 24 urteko arrasatearra izango da EGINEKO berriemale berria, Danel Goikolea ordezkatzuz. Leioako Kanpusean kazetaritza ikasi eta ETBn ibili da lanean. Danelek ikasketetara dedikatzeke utziko du lana.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABALETA**

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK


Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

NEGUKO HAMABOSTALDIA

**ADI! NEGUKO HAMABOSTALDIA
LUZATU EGIN DUGU!**


Kanpaina honek izan duen harrera ona dela eta, aprobetxa itzazu ARRASATE KIROLAKek eskaintzen dizkizun aukera paregabeak. Neguko eskaintza honen azken egunak dituzu, eta gogoratu:

**ARRASATEKO KONTZEZIÑO 8an,
KIROL BAKOITZARENTZAT ERANTZUN BAT.**




**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño Kalea 8 - Tel 79461
ARRASATE MONDRAGON



Neguko Hamabostaldia



APROBETXATU! LUZATU EGIN DUGU GURE ESKAINTZA!!

Araba Etorbidea, 18 Tfnoa: 77 14 86 ARRASATE



Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Ez da burua makurtzeko garairik aproposena

Emaitza arraro samarrak gertatuko dira azken ihardunaldietan, ez dago dudarik. Saikapeneko lehen tokietan daudenek ez dute arriskatzeko gogo handirik erakusten; erdibidekoek, berriz, nolabait puntuak atera behar eta ahalegin berezia eskatuko diete euren buruei. Edozein modutan

ere, talde gogorrenak aurrean jartzen direnean, bada kokildu eta guztia galdutzat emateko joera garbi bat. Talde handiei errespetoa zor zaie, hori ez du inork ukatuko, baina pasatu barik, eta gogoratu sorpresetarako une egokia dela, batzuk beste fase batean ikusten dute eta bere burua.

NUEVO
taberna

Bañez Doktoea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tlfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakiñ eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	14	12	1	1	90	31	25
ZULOK	14	11	1	2	54	29	23
LOS HEREDIA	14	9	2	3	64	23	20
ARRASATE KIROLAK	14	9	2	3	50	36	20
URMAY B. K.	14	8	3	3	49	28	19
KAIXO LENIZ1	14	9	1	4	38	57	19
BETRAYER	14	7	4	3	42	30	18
AIZPUN BILA	14	8	1	5	47	37	17
ITT	14	7	1	5	60	34	15
DANOK LAGUN	14	6	3	5	37	29	15
BUKANAK	14	6	3	5	40	38	15
SIBILIUS ROVER	14	5	4	5	34	31	14
DRINK TEAM	14	3	3	8	20	51	9
DRAFT	14	4	0	10	48	69	8
WHISKERIA LINDE	14	4	0	10	42	62	8
RESAKAS	14	1	1	12	22	67	3
GARIBAI-5	14	1	0	13	20	63	2
AMOZKIBAR II	14	1	0	13	26	94	2
GUZTIRA	252	111	30	111	810	810	252

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	14	11	2	1	46	18	24
ZIZTI-ZAZTA	14	10	3	1	53	20	23
ZULUS	14	10	1	3	62	38	21
JODO FLORO	14	8	4	2	61	29	20
BIZKORRAK	14	9	2	3	32	20	20
MOTZ	14	8	2	4	56	59	18
PUBLICOOP	14	8	2	4	33	37	18
DIEGO ANTONIO	14	7	3	4	52	33	17
KAKAJAURI	14	5	4	5	36	42	14
GATZBAKUAK	14	4	5	5	27	40	13
TRONKOTEAK	14	5	3	6	45	46	13
LA BANDA	14	5	2	7	33	33	12
ANBOTOSTE K. T.	14	5	1	8	33	42	11
LAUTHERBRUNNEN	14	4	1	9	22	49	9
BAYERN PROMESAS	14	2	2	10	21	60	6
ATERPE KAFETEGIA	14	2	1	11	23	44	5
KAJOI TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	252	107	38	107	656	656	252

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	14	11	2	1	75	20	24
ADELAIDA HAIZEA	14	10	2	2	81	22	22
NOSKI	14	11	0	3	77	33	22
LASO ARREGI	14	8	3	3	59	33	19
ARRASATE KRIST.	14	9	1	4	52	35	19
TXOKO TABERNA	14	9	1	4	40	33	19
GURE LEKU	14	8	2	4	65	39	18
NUEVO TABERNA	14	8	2	4	61	47	18
ALPARGATA TURBO	14	6	2	6	48	47	14
ADOBE F. C.	14	7	0	7	45	45	14
NAVARROS	14	6	1	7	45	47	13
AUF DEM KOFFER	14	5	2	7	32	41	12
GANBELAS	14	5	2	7	33	45	12
KRISKIBALDA	14	2	5	7	32	51	9
BALEIKE	14	2	1	11	23	77	5
ATXANTA KE TE...	14	2	0	12	25	83	4
SEGUROS ORBITA	14	2	0	12	33	69	4
ALLAKUIDAUS	14	1	2	11	21	81	4
GUZTIRA	252	112	28	112	848	843	252

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	14	12	2	0	88	22	26
LEINTZ GARAGAR.	14	10	3	1	58	23	23
POTROAK LORAT.	14	9	4	1	52	35	22
PEPELUS	14	8	4	2	55	42	20
MONTERREY TAB.	14	9	0	5	67	34	18
KOXKAS	14	7	4	3	59	37	18
LOS DIMY	14	6	5	3	60	36	17
ZOTZ	14	8	1	5	41	49	17
NOTXINGAN FLO.	14	6	4	4	54	47	16
FOTO IMAGEN	14	6	3	5	57	43	15
ARTZANKOS UDAL.	14	5	3	6	55	51	13
UGLYS	14	5	0	9	33	46	10
SOLANO 7 MARES	14	5	0	9	53	51	10
SOKOAKOAK	14	4	1	9	49	53	9
OLEEE!	14	3	1	10	35	67	7
EZKINAKO HONTZAK	14	3	0	11	31	81	6
BAYERN DE LENIZ	14	1	1	12	27	83	3
ILUNA TABERNA	14	1	0	13	20	92	2
GUZTIRA	252	108	36	108	892	892	252

Bodisca s.l.

Zeramikako pabimentu eta gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

FOTO imagen ARGAZKI



Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE

Jovi

PINTURA EKOLOGIKOAK

Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

BELARRIRA

◆ **Diziplina-batzordea**

Zaldibarko Futbito Txapelketako diziplina-batzordeak, berriz ere lan handia izan du aste honetan: Alde batetik, A taldeko Arrasate Kirolak taldeari bi puntu kendu dizkio, tokatzen ziztaionean ez arbitratzeagatik. Hurrengoan, kanpora. Bestetik, Lautherbrunnen eta La Banda taldeei lan-extra jarriko zaie: geratzen diren ihardunaldietan, azken bi partiduak arbitratzea. Zergatik? baloia errekarra bidali eta gero bila joan ez zirelako. Euren erruz baloi bat galdu zen.

◆ **Afariak**

Aste honetan afaria irabazi duten bi taldeak Suministros Industriales Ugarte eta Gatzbakuak izan dira. Zorionak bieii!

◆ **Asteko partiduak**

A taldean, Los Heredia - Urmay Burger King
 B taldean, Zulus - Zizti zazta
 C taldean, Gure Leku - Adelaida Haizea
 D taldean, Monterrey taberna - Pepelus.



Aditu guztien iritziz, futboleko edo futbitoan ondo egiteko ez dago baloia begiratu beharrik, hanketan sentitu eta lagun eta arerioen mugimenduak zaintzea askoz hobea ei da. Antza denez, argazkikoak ez dira enteratu.

EMAITZAK

A TALDEA

Drink Team 2	Garibai-5 1
Zuloak 1	Arrasate Kirolak 3
Betrayer 3	Resakas 0
Aizpun Bila 2	Bukanak 3
Sibilius Rover 1	ITT 1
Draft 4	Argi Ibili 5
Los Heredia 5	Amozkibar II 0
Whiskeria Linde 2	Urmay B. K. 5
Kaixo Leniz 1	Danok Lagun 0

C TALDEA

Atxanta ke te... 2	Adelaida Haizea 11
Alpargata Turbo 5	Adobe F. C. 1
Ganbelas 2	Gure Leku 6
Navarros 2	Laso Arregi 3
Noski 7	Auf Dem Koffer 4
Seguros Orbita 5	Baleike 0
Trikiti 2	Arrasate Kristaldegia 3
Txoko taberna 3	Alla Kuidaus 0
Kriskibalda 2	Nuevo taberna 5

D TALDEA

Monterrey tab. 3	Zotz 0
Foto Imagen 2	Leintz Garagar. 8
Ezkiñako Hontzak 2	Sokoakoak 1
Oleel 1	Uglys 4
Artzankos Udal. 4	Solano 7 mares 3
Notxingan Flo.1	Potroak Lorategi 3
Bayern de Leniz 1	Sum. Ugarte 4
Iluna taberna 1	Koxkas 8
Pepelus 3	Los Dimy 1

B TALDEA

Mikelos 1	Zizti Zazta 1
Kakajauri 2	Jodo Floro 2
Aterpe kafetegia 2	Zulus 4
Bayern Promesas 1	Publicoop 4
La Banda 1	Lautherbrunnen 2
Diego Antonio 2	Gatzbakuak 2
Tronkoteak 2	Bizkorak 2

Zarugalde kalean...

BRANKA
 taberna

**I
 R
 T
 A
 B
 E
 R
 N
 A**

Ferrerias kalea
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 71 80

LIZARRA
 taberna

Leintzibar kalea, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 72 35

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 6

Zaldibar

- 08.45 Zuloak / ITT
- 10.00 Atxanta ke te... / Kriskibalda
- 11.00 Los Heredia / Urmay B. K.
- 12.00 Los Dimy / Sum. Ind Ugarte
- 13.00 Sokoakoak / Zotz
- 14.00 Bukanak / Draft
- 15.00 Danok Lagun Amozkibar II
- 16.00 Noski / Ganbelas
- 17.00 Kakajauri / La Banda
- 18.00 Potroak Lorategi / Oleee!
- 19.00 Alpagata Turbo / Auf Dem Koffer

Iturripe B

- 13.00 Drink Team / Kaixo Leniz
- 14.00 Mikelos / Tronkoteak
- 15.00 Resakas / Garibai-5
- 16.00 Lautherbrunnen / Aterpe kafetegia
- 17.00 Nuevo Taberna / Arrasate Krist.

Iturripe A

- 11.00 Publicoop / Anbotoste K. T.
- 12.00 Bayern de Leniz / Koxkas
- 13.00 Sibilius Rover / Betrayar
- 14.00 Laso Arregi / Seguros Orbita
- 15.00 Monterrey taberna / Pepelus
- 16.00 Gure Leku / Adelaida Haizea
- 17.00 Baleike / Nabarros

Igandea 7

Zaldibar

- 08.45 Bizkorak / Gatzbakuak
- 10.00 Adobe / Txoko Taberna
- 11.00 Argi Ibili / Aizpun Bila
- 12.00 Zulus / Zizti-Zazta
- 13.00 Uglys / Notxingan Florest

Iturripe A

- 09.45 Leintz Garagardotegia / Iluna Taberna
- 11.00 Trikiti / Alia kuidaus
- 12.00 Artzankos Udalaiz / Ezkiñako Hontzak

Iturripe B

- 09.45 Foto Imagen / Solano 7 mares
- 11.00 Jodo Floro / Motz
- 12.00 Arrasate Kirolak / Whiskeria Linde

NON DAGO BALOIA?




II. astea

NON DAGO BALOIA?

- Erantzuna
- Izena
-
-
- Tfnoa



Joan den hileko Non dago baloia? lehiaketaren irabazlea, Ainhoa Lasaga. Ainhoak astero-astero bidali ei du kupoitxoak, horixe baita saria jasotzeko modurik onena.



EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

ILUNTZ eta ITURRIOTZ
tabernak



Trikipublici

Kanpatorpea, 2 Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak • Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa • Zuzeneko publizitatea • Bideo produkzioa •

● *Manu Aranburu*

Nuklearra bartzertzeko mezuaz

Manu Aranburu, usurbildarra, basozaina. 1991. ean Chernobil-en izan zen, Eguzki ren izenean, bertako sarraskia ikusi eta mintegi batean parte hartuz. Orain denbora gutxi, Monterronen emandako hitzaldi batean Chernobil-en ikusitakoa azaldu zuen.

— Noiztik eta zergatik Eguzki ko partaide?

— Mobida antinuklearean 1974. urtean hasi nintzen eta konpromezu militantearekin 1980. urtean, Komite Antinuklearretan. Komiteak disolbatu eta gero, Eguzkiren sorreran hartu nuen parte, eta orain ere, ekologista naizenez, bertan nago.

— Zer dela eta joan zinen Chernobil-a?

— Eguzkik nazioarte mailan harreman ugari dauka ekologista taldeekin eta Kieveko talde batekin harremanetan jarri eta han burutu behar zen nazioarteko mintegi batetara joan nintzen, LABeko kide batekin batera.

— Zer aurkitu zenuen han?

— Chernobil eta Ukrainian izugarritzko desastrea dago, ez


nuen uste hainbestekoa zenik eta uste dut errealitate bihurtu dela teknologia nuklearra ondo menderatzea ezinezkoa dela; 1.000 kilometro karratu lur betirako ustelduta. Bestalde, ustelkeria aipatuko nuke, polizia, gobernu, gonbidatu gintuztenek, dirua besterik ez zuten nahi.

— Chernobilgo istripuaren ondorioak?

— Kiev-en 3.000.000 pertsona bizi dira eta kutsatuta zegoen; istripua gertatu zenetik baziren 5 urte eta oraindik Geiger kontadorean erradioaktibitatea markatzen zen. Chernobilen bertan, barruan eta inguruetan, kontadoreak markatzen zuenak ondo adierazten zuen han ez zegoela bizi izaterik, eta hor 14.000 langile daude lanean. Hango lurrak betirako galdua daude.

— Eta gizakiengan?

— Ugari: 10.000 pertsona hilik; zientzi gizonen ustez, 2.000. urtea baino lehen 500.000 minbizi kasu berri; jende askok aldegin behar dena utzita.... Bertakoekin egoteko eragozpenak jarri zizkiguten, baina minbizia zuten umeen argazkiak ikusi



ahal izan nituen. Gauza bat esango dizut: ez nuen adorerik izan argazki haiek ekartzeko, biolentzia erabiltzea zela iruditu zitzaidan eta.

— Posible da hitzaldietan horrelakorik adieraztea?

— Mezu garbia dugu, zentral nuklear guztiak itxi egin behar direla eta arma nuklear guztiak desegin egin behar direla. Euskaldunok sentsibilitate handia dugu gai hauekiko, zentral nuklear bat jarri nahi izan duten bakoitzean moskeatu egin gara.

— Chernobilen istripua gertatu zen, Sobiet Batasun ohian dauden zentral nuklearrak ez dute fama onik; hemengoak?

— Adituek diotenez mendealdean abantaila bat dugu, alde batetik Estatu ei dago,

bestetik gizartea eta beste batetik elektrindar enpresak... interes gatazka dagoenez, errazagoa dela erregulatzea. Sobiet Batasunean, gizarteak ez zuen indarririk eta konfidantza itsua zuten energia nuklearean. Hemen, bere garaian, gogor egin zen Deba, Jaizkibel eta proiektu horien aurka. Errentabilitateaz ari direnei esango nieke zentral nuklearen kostuak izugarriak direla, enpresa elektrikoek ez baitute prozesu guztia ordaintzen: harrobiko prozesua ez dute ordaintzen, garraraio, segurtasun, zabor erradiaktiboan biltetan prezio politikoak ordaintzen dituzte... eta hori guztion artean ordaintzen dugu.

— lindar nuklearrarentzat alternatiba?

— Estatu Espainarreko Parlamentuak onartu du zentral nuklearrak poliki-poliki ixteko plana. Gaur energia mota asko dago.

Dena dela, energia alternatiboan kontuan Euskal Herria, Estatu Espainarra eta Europa oso mantso doaz.

● **“Uste dut errealitate bihurtu dela energia nuklearra ondo menderatzea ezinezkoa dela ”**

Arratsalde bat Ludotekan

Urtarrilaren 18tik, zabalik dago Sebero Altubeko ludoteka. Umeek zergatik aukeratu dute ludoteka? Zer moduz pasatzen dute? Zer jolas dago? Zenbat lagun? Galdera hauei eta beste batzuri erantzuteko, umeei utzi diegu arkatza eta hona hemen euren erantzun eta iritziak.

ADIN BAKOITZARENTZAT BERE JOSTAILUAK

Ludoteka zabalik dago eta karneta hartu eta sartu besterik ez duzue. 3 urtetik 14 urtera artekoentzat jolas desberdinak daude. Txikienentzat sukaldetxo bat eta denda bat dago. Haundiagoentzat, berriz, antzerkia eta antzerkia egiteko txontxongiloak. Etortzen bazarete, andereñoak ezagutuko dituzue. Bi txanda daude: 5etatik 6.30etara eta 6.30etatik 8etara.

**OXEL ETA DUNIXE
(5 ETA 9 URTE)**

ANIMATU!

Ez al zarete ohartzen Ludoteka zabaldu dela? Bertan gauza bitxiak aurki daitezke.

• *Manos plas plas!* La casa embrujada, Puzleak... eta beste jolu pila bat. Badago txoko bat etxezale direnentzat ere eta zankoak ere bai. Jendeak antzerkiak egiten ditu bertako txontxongilo etxetxoan. Burutsuak direnentzat ere, joku matematikoak daude: adibidez "Conecta 4 Movil". Badago metro txiki bat ere; bertan, ordaindu gabe jakin ahal izango duzu zeure luzaera. Negu honetan ez dut uste hotzik pasako duzunik ludotekan, radiadore handi eta polit bat dugu bertan eta. Ez kezkatu jokuetan jolasten ez badakizu, guk lagunduko dizugu eta, denon artean jolas egingo dugu. Mago ere bihur zaitezke! Nola? Magia borras joku interesgarriarekin. Hala ere, guri joku gehiago edukitzea gustatuko litzaiguke. Zergatik ez dituzu zeure jostailu zaharrak bertara ekar-

tzen? Ludoteka magikoa denez, berri egingo ditugu eta berri-berri utzi!

Gutuntxo honi bukaera emateko hau esaten dizuegu: Apaindurik dago eta marrazki politez gainera.

Animatu, zure zain gaude Ludoteka guztia.

**IKER JIMENEZ ETA
ENEKO ARANA
(11 URTE)**

JO! IGANDETAN EZ DUTE ZABALTZEN!

Aste osoan, bi egunetan ezik, etortzen gara ludotekara. Ludotekako andereñoi fastidiatzea, pelmada ematea eta ludotekako jostailu denak apurtzea eta galtzea gustatzen zaigu. Baina oraindik ez ditugu guztiak apurtu. Bestalde, oso haserre gaude ez digutela ludotekan bokadilloa jaten uzten eta tragatu egin behar izaten dugu Seberon. Ia beti bigarren txandan sartzen gara. Beti ezin izaten ditugu lehen txandara etorri: psikomotrizitatea, katekesia eta dantza izaten dugulako. Gainera, txarto pentsatzen zaigu igandetan zabalik ez egotea, ez gara elkartzen eta.

Etorri gurekin jolasak apurtzera, oso ondo pasatzen dugu eta.

**UNAI "EL KASKARRABIAS",
JANIRE "TERREMOTO", KEPA
"EL PEKITAS", ANDONI
"SUESENAGER", GANIS "EL
GAMIS", AITOR "EL EPAGETTI"
ETA JOKIN "EL KOJIN"
(7 URTE)**



Adin desberdinetako umeei zuzendutako jostailuak aurki daitezke Ludotekan.

ZERGATIK LUDOTEKA?

Denok galdetuko duzue zergatik apuntatu ginen ludotekara Alde batetik, musika herrikoa entzun eta jolas egiteko. Denoi gustatzen zaigu musika eta jolas egitea, biak batera, horrela hobeto delako. Musika gabe ludoteka piskabat "soso" da, lehen AEDk hartu baino lehenago musika zegoen eta denok jolas eta abestu egiten genuen, oso ondo pasatzen genuen, orain, berriz, ondo pasatzen dugu baina piskabat aspertu ere bai. 6.30etatik aurrera haundiak datozenean Rock and Rolla ipini, eta orduan bai izango litzatekela *Super Ludoteka*. Etxean, neuk erabaki nuen ludotekan apuntatzea beste urtetan bezala pasatzeko. Ikastolan, etxean... leku guztietan entzuten da ludoteka "una mierda" dela, baina hori ez da egia, ludoteka *super, super guai* da. Apuntatu ez zaretenok oraindik apun-

ta zaitezket. Jende piska bat gehiago behar da: 105 bazkide daude, baina zenbat eta azkarrago apuntatu, orduan eta hobeto. Joku asko daude: Polvo de estrellas, plif plaf, Play mobil, sukaldaritza, domino, antzerkia, enredos, marrazkia, la casa encarnada, magia borras, memory, puzzleak, partxisa eta halakoak. Bi monitorea, Goizane eta Amaia, oso majak dira, ez dira haserretzen; beno, gu txarto portatzen bagara eurok ere haserretu egiten dira.

Gauza batera jolasten baduzu, hori oso erraza da. Joku bakoitza bere lekuan dago eta bere ikurra du. Jokua jolasten hasi eta ikurra ikusi eta badakigu norentzat den.

Gaur bazkide berri bat egin dugu: marigorringo bat.

MARKEL ELORZA
(11 URTE)

JOLASA ETA LUDOTEKA

Ez daukagu zalantzarik haurrentzat jolastea oso garrantzitsua dela, bere bizitza da, iharduera normala. Jolasean, libre, gustora dago.

Jolasaren bidez, inguruzten duen mundua nolako den ikasten du; bere ondoan dauden objektuak, egoerak aztertzen ditu berauen ezagueriak ulertuz; nagusien mundua imitatzen du; eraikitzaile bihurtzen da, asmatzaile.

Jolasteko, haurrak egoera ezberdinak aukeratu edo eskatzen ditu: une batzutan, haurrak, berarekin jolasteko eskatzen digu nagusioi. Helduekin jolastu nahi du, gu bere garapenaren lekuko eta bere jolasetako partaide izan gaitzela eskatzen digu.

Une askotan, haurrak beste norbaitekin edo taldean jolasteko beharra du: konpartitzen, arauak betetzen, amore ematen, irabazten, galtzen... bakoitzaren kalitateak eta mugak ikasten.

Haurrari bakarrik, jolastea ere gustatzen zaio, eta une hauean, bere inteligentzia, sormena

eta irudimena garatzen du.

Haurrei ez zaie kostatzen jolasteko aukerarik aurkitzea, baina ez da erreza espazio propioak edukitzea, objektu pluralak, era desberdinetakoak eskuratzea, elkarrekin jolasteko egoerak aurkitzea eta helduak berarekin jolas egitea.

Gure haurrak eta gazteak, nahiz eta askotan horrela dela pentsatu ez, helduekin egoteko, bizi izateko, jolasteko irrikitan daude.

Gaur, Arrasatek ludoteka dela medio eskaintza hau ematen digu: hurrekin bizi izateko prest dauden ilusioz beteriko bi heldu; espazio propioa (jostailuak, tailerrak, txokoak...) eta euskaldunak, haurrak bere atsedendian, agian eskolako soilik den hizkuntza, aurki dezan; eta haur ezezagunak edo lagunak aurkitzeko espazioa.

Guri dagokigu, ludoteka aprobeztatzea eta aberastasun hau haurrei eskeintzea.


NEREA ALZOLA.
AEDKO HAUREN EKINTZA
TALDEKO LEHENDAKARIA

Saskibaloiko lehendakaritzan erreleboa prestatzen

Jose Mari Balzategi datoren denboraldian ez da Arrasate Saskibalo Taldeko lehendakaria izango, hori adierazi dio behintzat taldeko Zuzendaritzari. Ekainean denboraldia bukatzen denean, beste norbait izango da Arrasate Saskibalo Taldearen lehendakaritzan.

Balzategik zioenez, ekainean gertatuko dena orain iragarri gero, aldeketa ez da traumatikoa izango. "Norbait aurkituko bagenu, ekainera arte, poliki-poliki postua zer den ikusteko aukera izango luke. Edozein modutan, ekainetik aurrera ere, taldea zuzenduko dutenei laguntzeko prest nago, lehendakaritza utzi egin behar dut, baina ez taldea"

Arrasate Saskibalo Taldeko presidentea bere asmoa Zuzendaritza Batzorde aurrean iragartzeaz gain, jokalarien guraso eta entrenatzaileen artean ere iragarri du. "Asteartean batzarra burutu genuen guztiekin eta nire asmoaren berri eman nuen, berritze-prozesua ahal izanez gero barrutik abiatu dadin. Hau da, entrenatzaile eta gurasoekin hamabost eguneko epea jartzeko akordioa hartu genuen, ea denbora horretan norbait animatzen den, gero berritze-prozesua martxan



Josemari Balzategi, Arrasate Saskibalo taldeko presidentea.

jartzeko. Hamabost eguneko epean inor agertuko ez balitz, zaletuei edo kanpora begira jarriko ginatke". Jose Mari Balzategik ez zeukan oso garbi aipatutako hamabost egunetako epean, lehendaka-

ritz hartu eta Zuzendaritza-Batzordea osatzeko norbait irtengo den. "Oraingo Zuzendaritza-Batzordeko pertsona bat animatuko da beharbada, baina orain arteko planteamendurik ez luke izango, ez

● Oraingo Zuzendaritza-Batzordeko pertsona bat animatuko da beharbada, baina ez luke izango orain arteko planteamendurik...

genituzke 11 talde izango, bertako jendeak bakarrik jokatuko luke...".

Aurten Saskibalo Taldea aurrera atera ahal izateko arazo handiak izan ditu Jose Mari Balzategik, diru-arazoak, noski, eta ez espero zuen laguntzarik; hortan oinarritzen da Arrasate Saskibalo Taldea uzteko arrazoia.

Bigarren fasea

Dena dela, hemendik ekainera arte Balzategik bere postuari eutsi egingo dio, aurtengo ligako bigarren fasea jokatzen den arte. Lehenengo fasea bihar bukatuko da Gasteizen; arrasatearrentzat oso zaila izango den partidua, eta bigarrena hemendik bi astetara hasiko da. "Lehen faseko emaitzak hartzen dira kontuan -zioen Jose Mari Balzategik- eta nire ustez, Patronato eta Loiolak dagoeneko eskuratu dituzte igoera-fasea jokatzeke aukera ematen duten bi postuak, diferentzia handia baitaude. Gauzak horrela, jaisteko inolako arrisku barik, gure helburua hirugarren postua lortzea da. Bigarren fase honen gauzarik onena hauxe izango da: Musakolara joaten diren zaleek, bost partidu on ikusteko aukera izango dutela".

VE ECUADOR
Bidaiak
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06


EGVZKIGRAF
Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia
 Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PENALTIAK

● Arrasate Eskubaloia senior mailako taldea, txapelketako bigarren zati oso ona egiten ari da, baina alperrik, da-goeneko ezinezkoa baitzaio mailaz igotzea. Iaz gauza bera gertatu zitzaien.

Eskubaloiko junior mailako taldeak ere arazoak dauzka, baina oso bestelakok. Taldeak mailaz igotzeko posibilitate handiak dauzka, baina lortuz gero senior mailako taldearekin jokatu beharko luke datoren denboraldian.

Beraz, hori gertatuz gero, ikusi egin behar zen den komenigarriena, goiko mailan bi talde izan edo orain bezala. Behar bada, junior mailakoek paper hobea egingo lukete lehen mailan.



Rugbykoek ondo jokatu baina emaitzetan nabaritu ez

Arrasate Rugby taldeko senior mailako jokalariek jipoi galanta hartu zuten joan den astean jokaturako partiduan, 33 eta 10 galdu baitzuten Hernaniren aurka. Arrasatearrak ondo jokatzeko dabilta, baina azken aldean baja ugari izan dute, eta aurrean esperientzia handiko talderen bat jartzen zaienean, une konkretuetan asko nabaritzen da normalean jokatzeko duen jendearen falta. Beraz, normalean titular izaten direnak berriz jokatzeko moduan izan arte, konfiantza eman behar gazteei. Emaitzak alde batera, gazteei ez zaie gaizki etorriko partidua batzuk jarraian jokatzeko aukera izatea.

Nola ikusten duzu bigarren buelta?

Nahiko argi Jokalariek badakite zer egin, bidea ondo markatuta dute eta sailkapenera iritsiko dira.



JOSE LUIS EZKURRA
Mondrako presidentea

EMAITZAK

Eskubaloia

Seniorrak: Arrasate Kirolak 24 - Urnieta 15
Juniorrak: Arrasate Kirolak 15 - Ordizia 13
Jubenilak: Urola 15 - Arrasate Kirolak 12

Hurrengo partiduak

Kadeteak: Arrasate Kirolak - Leitzaran, igandea 10.30etan Iturripen.
Jubenilak: Arrasate Kirolak - Leitzaran, igandea 12etan Iturripen.

Saskibaloia

Bigarren maila: Emakumezkoak, Conorsa Lestonnac 84 - Arrasate 67
Sub-23: Arrasate 78 - Amigos del Baloncesto 48
Jubenilak: Gizonezkoak, Arrasate B 71 - Itzurun 37
Emakumezkoak, Juven A 116 - Arrasate 39
Kadeteak: Gizonezkoak, Arrasate A 53 - Loiola 73
Zahor A 66 - Arrasate C 46
Emakumezkoak: Eskoriatza 48 - Arrasate B 38

Hurrengo partiduak

Jubenilak: Emakumezkoak, Arrasate - Don Bosco, igandea, Musakolan 12etan.
Kadeteak: Gizonezkoak, Arrasate B - Zahor A, larunbata, Musakolan 4etan.
Arrasate C - Ikastola Urtek, igandea, San Viatorren 12etan.
Emakumezkoak, Arrasate B - Ordizia, larunbata, San Viatorren 4etan.

Pilota

Gipuzkoako kopa: Arrasate - Girizia (Oiartzun), larunbata 10.45, Iturripen. Alebin, infantil eta kadete mailako partiduak.

Rugbya

Seniorrak: Arrasate - Mungia, igandea 12etan Gara-gartzan.
Jubenilak: Arrasate - Bera Bera, larunbata 4etan Gara-gartzan.

Kadeteak: Hernani - Arrasate, larunbata 4.30etan Hernanin.

Futbola

Hirugarren maila: Mondra 2 - Getxo 0
Preferentea: San Andres 0 - San Viator 3
Ohorezko maila: Euskalduna 1 - Mondra 2
Jubenilak: lehen maila, San Andres 2 - Lakua 0
bigarren maila, Irun 0 - Arrasate 2
Kadeteak: Aurrera Ondarra 2 - Arrasate 3
Hurrengo partiduak:
Emakumezkoak: Mondra - Ikastola Urretxu, igandean 11.30etan Atxabalpen.
Ohorezko maila: Mondra - Mundaiz, larunbatean 4.15etan Atxabalpen.
Jubenilak: 2. maila, Arrasate - Urnieta, igandea 5.15etan Atxabalpen.
Kadeteak: Arrasate - Anaitasuna, larunbata 11.30etan Atxabalpen.
Haurrak: Arrasate - Añorga, larunbata 10etan Atxabalpen.
Arrasate - UDA, igandea 10etan Atxabalpen.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK

 **77 05 65**

Janariak etxean izoztea (III)

Janariak izozteko prozesuak lau atal ditu: presakuntza, egitea, etiketa jarzea eta kontserbazioa.


Prozesu horretako atal bakoitza arau batzuk jarraituz egin beharra dago, eta emaitzik onenak lortzeko, horietako bakoitzean zorrotz jokatzea komenigarria izaten da.

1.- Arau orokor bezala, kontserbatu nahi den janaria, jan nahi denean berehala gertu egoteko moduan prestatu behar da.

Horregatik, beraz, hondakinak eta jangarriak ez diren zatiak hasieratik baztertzea komeni da: hezurak, azalak etb...Produktua garbitu eta lehortu egin behar da, edo gutxienez, beti garbi-garbi eduki.

Frutak (azukretan nahiz almibarretan) eta barazkiak (eskalfatuta) prestatzeko, arau zehatz batzuk daude, jaki prestatuentzako bezala.

Janaria egiteari ekin aurretik, komenigarria izaten da



zati handiak atal txikiagotan zatitzea.

2.- Ontzia behar beha-

rrezkoa da, hainbat arrazoriengatik: produktuak ez dira lehortzen ontzian badaude, ez

du janari batek bestearen usarik hartzen, koipeak ez dira mintzen etb.

Ontziaren kalitatearen baitan ere badago izoztutako produktuen azken kalitatea.

Merkatuan badira lan honetan arrakastarik handiena lortzeko modua eskaintzen duten artikulua.

3.- Ontzi bakoitzari, kontserbazioko data adierazten duen etiketa jarri behar zaio, izozkailuan zenbat denboran daukagun jakin ahal izateko eta kontsumoan rotazio egokia egin ahal izateko.

Hiru lan hauek, etxean janariak izozteko ohitura duen jenderik gehienak ondo egingen ditu, baina arazoak laugarren puntuan hasten dira, kontserbaziolari dagokionean. Hortaz hitzegingo dugu hurrengoan.

MARIA TERESA ALONSO
EROSKIKO KONTSUMOKO
MONITOREA
(Erredakzioan itzulia)



LASAGABASTER


ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55


Nola heltzen zaizu publizitatea etxera?

ANIEL ABELTZE ETA BITORRIANATXO SORGINA (I) ANIGOR (Gaztaria)

1992an JASOTAKO PUBLIZITATEA




1992an ARRASATEKO ENTITATEEK BIDLITAKO PUBLIZITATEA



Nola jasotzen duzu informazioa Arrasateri buruz?

ARRAZI TAR TIBURTZIO

Datu hauek hobetzea denon kontua da!



ELKARTEA
AED

ARRASATE
ARRASATE



SUTONDOAN

ANJEL ABELETXE ETA BITTORIANATXO SORGINA (I) (Gertatua)

*G*ure gurasoek sorginik ez dela esaten zizuten baina, euren gatik asko mintzatzzen bada, sortu egiten direla. Hau norainoko egia den ikustera nator orain.

Abeletxe baserria bizitza bikoa zen; bietarako sarrera atari zabal eder baten arkupe-tik zeuzkan eta haretako baten bizi zen Anjel, hogeitabost urteko mutil bizi, eragin eta indartsua; ez zen mutil eder horietakoa baina, horma zahar zuloetatik irteten diren ira multzo antzera, bere belarriko zuloetatik ile dardakak aparte, ezta hain itsusia ere. "Anjel bihurri" ere deitzen zioten bere lagunek, ez bihurria zelako, (bihotz zabal eta on-ona zuen eta), baizik beste inork bor-luetaraino bolarik iritsi ezin zuten bolatoki gaitzenetan ere, berak bolari ezartzen zion az-pijan bihurri eta indartsua bide zirela, birla guztiak airean eramaten zituelako, jolas honetan ere, beste askotan bezala, nagusi agertzen zelako. Beste batzuk, oster, azkenengo jentilak Abeletxetik hurbil bizi izan zirelako eta bera hain indartsua zelako, Anjel ere haien arrazakoa zela esaten zuten. Beste inori gaitzik egiten ez zekiena zen, bekaitz-gorrotorik eta beldurrik ere ezagutzen ez zuena, eta nola ezaguera edo kontzientzia garbikoa zen, zer larritu larregirik ere ez zuen.

ARREGI TAR TIBURTZIO

Uraundirik handienak

1593ko irailaren 21a, 1641eko irailaren 8a... daude jasota Arrasateren memorian ur haundi edo uholdeen data gogoangarri moduan. 1834ko ekainaren 30ean izan zena, berriz, "San Pablo urak" edo "San Martzial urak" izenez ezagun egin zena, izan ei zen joan den mendean Mondragoen kalterik handienak eragin zituen. Gatzagan hasi eta Mutrikuraino, 19 errota desegin eta beste 15etan kalte handiak eragin zituen, 22 zubi aurrean eraman eta beste 28 ezertarako ez zirela utzi zituen; 6 burdinola hon-

datu eta 76 eraikin aurrean eraman eta beste 121 apurtu zituen. Hiru eliza jausi ziren eta guztira 39 lagun desagertu. Arrasaten Kontzesinoko arkuraino iritsi ei ziren urak. Zaldispeko zubia, "Zubigorri" izenekoa, ipurdi-ipurditik atera ei zuen urak, 1884an konponduta

zegoena.

1897koa ere "trinidareko urak" izenez ezaguna, Kontzesinoko Elizaren ataraino iritsi ei zen. Baina gogoratzen den inundaziorik handiena 1942ko abuztuaren 28an gertatu zen. Ilunkada aldera euri zaparrara izugarria jausi ei zen. Lantegi eta dendetan handiak izan ziren kalteak, Zarugalde eta Maala bezalako kaleetako bajuetan batez ere, eta ume bat ito ere egin zen. Urak norainokoak ziren ikusteko, Zerrajerako tailerretan, makina-gelan 1,790 metrotako altuera hartu zuen urak.

.....
Gogoratzen den inundaziorik handiena 1942ko abuztuaren 28an gertatu zen


EPELDE
 argazki denda
 Iturriotz, 24
 ARRASATE
 TFNOA: 79 19 71

Erdiko kale. 79 19 37

 Ferrerías. 79 87 62

.....
ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA

 J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



957ko udaberriko egun batez, eguna esaterik ez daukagu, 45 bat mondragoetar Besaidek antolatutako mendi irteera batetara joan zen, Ernio mendira hain zuzen ere. Autobusa Aramaixoko Jauregirena izaten zen, besterik egon ere ez eta. Orduan ere, ez orain bezain sarri, baina egiten zituzten mendizale mondragoetarrek irteeraxoak, nahiz eta egun bakarrerako eta inguruetara izan. Egunpasa hartan, Errexil gainean zegoen paradorean mokadutxo bat egin eizuten mendira igo aurretik, eta bueltan Tolosan egin zien erretratu hau Jose Mari Lasagabasterrek, sarri parte hartzen zuen eta horrelako irteeratan.

Ezkerretik hasitan, **Jose Luis Mendizabal**, **Ana Jesus Zubizarreta** Mietzerrekako Sara-Barrikoa, **Arantxa Ortubai**, atzean **Arantxa Barrutia** (gaur

egun Mertzedarietako monja) eta eskuman **Jose Ramon Ozaeta**. Eskurtsioaren antolatzailea Jesus Barrutia izan ei zen.

Erretratuan ikus daitekeenez, neskak abarkekin

joaten ziren, eta mutilak osteratxirukekin. Esan digutenez, txirukak orduan sartu berri ziren, moda berria, eta jendeak oso gustora hartu zituen, oinetako airosoa eta azpian gomaduna zelako.



UGARAN
jatetxea

• • •
Arreta handiko sukaldea
Giro abegikorra
• • •

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- 72 m²ko lokal komertziala guztiz egokitua salgai Otalora kalean oso prezio interesantean. Tfnoa: 77 05 61.
- Gela bat alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Garajea salgai Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24.
- Arrasaten edo inguruetan eskailarak gabeko etxe baten bizileku edo logela behar dut. Dei egin 77 05 65 tfnora.

- Esperientziadun andra gertu dago umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- Latin eta griegoko klaseak emango nituzke. Tfnoa: 79 50 88. Garbiñe.
- Neska bat prest dago umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 39 49.
- Esperientziadun neska prest etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92.
- Teniseko klaseak ematen dira. Adin eta maila guztiak. Sei laguneko taldea gehienez. Esperientzia eta tituloduna. Tfnoa: 79 52 80.

- Dogo argentinar arrazako txakurkumeak salgai prezio interesgarrian. Dei egin 7etatik 10etara 79 88 53 tfnora.
- Ibiza GL 1.500, SS-1965-Y salgai. Tfnoa: 79 66 14.
- Seat 127 salgai. SS-I. 80.000 Km. Oso merke. Tfnoa: 79 56 79.
- Vespa 150 salgai. SS-V. 95.000 PTA. Tfnoa: 79 71 79. Dei egin 8etatik 10etara. Jabier.
- Zanussi Z6521 estreinatua gabeko garbigailua salgai. 5.000 PTA. Dei egin gauzez 78 34 16 tfnora.
- Amstrad PC 1512 ordenadorea salgai, CGA monitore monokromoa, 512 Kb memoria Ram, disketera 5 1/4"takoa. Oso merke! Dei egin gaukeko 8etatik aurrera. Tfnoa: 79 71 26.
- Salgai: Garbitasuna egiteko Vaporetto bat, Ormako erloju bat, Wasili jarlekua, zutikako lanpara eta kuadro batzuk. Aprobetxatu aukera! Tfnoa: 79 64 50. Milagros.

Salerosketak

- Salgai Taunus Tropicano 10-F berogailu-hai-zagailua.
 - Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.
 - PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak). Prezioa: 9.000 PTA.
 - "Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina. Guzti hauetarako dei egin 77 06 90 tfnora. Kepa.
- Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai. Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gaineko (enzimera) su elektrikoa oparion doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.
- Vespa 200 TX-a salgai. SS-AH. Berri-berria. Dei egin eguerdiko 1etatik 2etara. Tfnoa: 79 76 84.
- Seat Ibiza 1.2 CLX salgai. SS-AB. 85.000 km. Prezioa: 425.000 PTA.. Dei egin 8etatik aurrera 55 78 28 tfnora.

Lana

- Klinika laguntzaile titulua duen neska batek umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen du bere burua. Tfnoa: 79 37 28.
- Latinezko klase partikularak behar ditut. Dei egin 79 34 58 tfnora. Iban.
- Frantzeseko klaseak behar ditut. Tfnoa: 79 31 25.
- Esperientziadun neska prest dago umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- Etxetik lan eginez diruz irabazi nahi duzu? Bidali sobre bat zure helbidearekin eta zigilu eta guzti helbide honetara: 161 Postakutxa. 20.550 Aretxabaleta.

Denetarik

- Loro baserrian neurri guztietako 10 urteko plataneroak erregalitzen dira. Joan eta atera egin beharko duzu, atxurra ere badaukagu. Dei egin 79 17 88 tfnora.
- Zorionak Kar mele eta Fede. Belaxe Gaartzan bat gehixau.

Aste Gazte

Hizkuntza Eskola Ofiziala

• Eibarko Hizkuntza Eskolan librez matrikulatzeko epea otsailaren 8 eta 19 bitartean zabalik.

Sexualitatea tailerrak

• Interesa duzuen gazte eta begiraleei: izena lehen bait lehen eman ezazue (ordutegia eta txandak antolatzeko). Arrasateko HIES Ekimenak antolatuta. Martxotik aurrera.

Bekak

• Minusbaliatu fisikoei zuzendutako lanbide heziketarako bekak. 17-40 urte. Majadahondan (Madrid) ikasteko. Dirulaguntza: matrikula doan, lojamendu eta mantenua, bidaiak, e. a. Epea: martxoak 23.

Lehiaketak

• Emakumeentzako Pintura Lehiaketa. Gai libre. Teknika: oleoa. Sariak: 50.000, 30.000 eta 20.000

PTA. Epea: otsailak 26.
• »Toribio Etxebarria» Enpresa Ideien IV. Lehiaketa. Gipuzkoako sustatzaile (banaka edo taldean) nahiz enpresei zuzendua. 3 milioi pezetako saria. Epea: martxoak 31.

Gazte Kooperatzaileak

• Garapen prozesuan dauden Hegoamerikako herrialdeetan lan egiteko programa. Diplomatu nahiz lizentziatuei zuzendua. Epea: otsailak 11.

Gazteriak zabal-zabalik ditu begiak baina esperientziaren argia du fal-tan».

F. FERNAN GOMEZ "EL PICARO"



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Ines Murillo

Usoa jertse dendakoa

- **Jertse bat egiteko bi kolore?** Gris iluna eta larrosa argitsua.
- **Ze motatako artilearekin?** Benetakoarekin lanakin, orain gehien eramaten dena da eta.
- **Saltzen dituzuen jertse guztiak eskuz egindakoak dira?** Ez, batzuk bai, baina ez denak.
- **Eskuz egindakoak garestiagoak dira?** Bai, normalean bai, baina kalitatea ere hobe da.
- **Lore bat?** Larrosa.
- **Zer irakurtzen duzu?** Ahal dudan guztietan egunkaria.
- **Zer puntu mota gustatzen zaizu gehien?** Eskuz egiten diren guztiak.
- **Ze koloretako begiak dituzu?** Esaidazu zeuk; berdeak, ezta?
- **Umeak gustatzen?** Bai, asko. Ez dut seme alabarik baina bai ilobak.
- **Baduzu aitona-amonik?** Ez, bat ere ez.
- **Informatiboa ala pelikula bat?** Informatiboak gehiago ikusten ditut normalean.
- **Gustoko duzun izen bat?** Yesika eta Jon.
- **Errezatzen duzu?** Ez, ez dut sinisten eta.
- **Negar egin duzun azken eguna?** Puf! oso negartia naiz. Ez dakit, beharbada orain dela 15 egun.
- **Gustoko platera?** Paella edo arrosa.
- **Gizonak laguntzen dizu etxekolanetan?** Ez nago ezkontuta, baina amak egiten dit lan guztia.
- **Edurretan ibiltzea gustatzen?** Edurra gustatzen zait, baina ez naiz inoiz edurretan ibili.
- **Zenbat jertse desberdin dituzu dendan?** Mila behintzat bai.



BERTSOAK

POLITIKEROAK

Jende dana ika mikan, arazoak errepikan, kontu garbirik ezin aurkitu gaurko politikan, arrazoiak bakarrikan, gezur ustelak korrikan, kontuak kontu langile dia galtzaile praktikan.

Hitzegiten dut serio naiz umorea desio, aberats eta sari jakintsu horien desafio. Herri xeak garbi dio eta kemena dario. Zuen azalpen guzti hoiekin ez naiz bate fio.

Uste oneko gizaki zu ere leial izaki burua nasten ari zaizkigu gosea aitzaki pobreentzako lain jaki, nun dan edonork badaki, beraz panplinak baztertu eta lo zorrotik jaiki.

JOANITO

H A U R T X O A
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

beinke

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

"EDERTU"
ileapaindegia
San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA
GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Jose Luis Feo

Argazkigintzan teknikak berrituz

Orain dela lau urte argazkiak egiten hasi zen Jose Luis. Orduetik teknika berriak ezagutu ditu eta Bergarako Pol-Pol argazkilarien taldean dago. Lehiaketa askotan hartu du parte eta hainbat sari irabazi ere bai.

— Noiz eta zergatik sartu zinen argazkilaritzan?

— Orain dela lau urte argazkiak egiten hasi nintzen nire kabuz. Asko gustatzen zitzaidan eta kamara bat hartu eta hortan hasi nintzen, joaten nintzen toki guztietan argazkiak egiten. Hasi nintzenean konturatu nintzen oso gauza gutxi nekiela, oraindik gauza asko nituela ikasteko. Orduetik, gauza eta teknika berriak ezagutu ditut eta zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta gehiago gustatzen zait.

— Ikastaroetan egon zara? Nola ikasi duzu?

— Ez naiz ikastaroetan izan, autodidakta izan naiz. Gauza bat benetan gustatzen bazaizu, galdetu eta interesa jartzen duzu. Batzuri eta beste batzuri galdetuz ikasi dut nik ere, besteek erabiltzen dituzten teknikak eta lan egiteko modua ezagutuz.

— Lehiaketetan askotan



aurkeztu dituzu zure argazkiak?

— Bai, hamasei lehiaketatan gutxigorabehera. Eta sariak ere irabazi ditut, hamasei horietatik hamar alditan lehen saria irabazi dut. Egia esan, sari horiek ematen dioten baino balio handiagoa ematen diet nik nire lanei, eta horregatik ahalik eta ondoen zaintzen saiatzen naiz eta beharbada niretzat duten baliogarengatik inoiz ere ez ditut saltzen.

— Zer dute zure argazkiek bereziki?

— Bada, ez dakit. Urte hauetan asko ikasi dut eta egia esan, ezin daiteke konparatu ere egin hasieran egiten nituen argazkiak eta oraingoak. Niri, montaiak, gaueko argazkilaritza eta makroan

eginiko argazkiak gustatzen zaizkit. Egiten ditudan argazkiak nik neuk errebelatzen ditut eta horrek joku asko ematen dit. Santamasetako argazki lehiaketan aurkeztu nituenak neuk landutakoak ziren. Negatibo bakoitzetik nahi dudana aukeratu, akatsak kendu eta efektu berezia ematen dizkiot.

— Desberdintasun handiak ikusten dituzu ASA eta Pol-Pol taldeen artean?

— Bai. Orain dela urtebete sartu nintzen Pol Pol taldean baina aurretik ASAn ere ibili nintzen. Nire ustez, desberdintasun handiak daude bien artean. Pol-Polekoek urte asko daramate argazkiak lantzen. Materiale aldetik ere oso aurreratuta daude. Guztion artean aztertzen ditugu argazkiak, akatsak ikusi eta nola hobetu ikasten dugu, lagun arteko lana da azken finean eta hori abantaila handia da. Esan bezala, ASA taldea ere ezagutzen dut eta nire ustez oraindik badituzte lortu beharreko puntu batzuk, esate baterako denon topagune izango den toki finkoa, materiala... Badakit guzti hauek lortzea ez dela erraza, baina denborarekin, lortuko dira.

Amodiozko gutunak

Berrigara aldizkariak amodiozko gutunen I. Berrigara lehiaketa antolatu du. 1978an baino lehenago jaiotakoek har dezakete parte lehiaketan. Euskaraz idatzitakoak izan beharko dira eta datorren otsailaren 14a baino lehenago bidali beharko dira Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara helbidera. Sariak honako hauek izango dira: 75.000 PTA irabazleak, 40.000 PTA bigarrenak eta Bergarar onenak 25.000. Sari ematea Berrigararen 100. alearen kale-ratzea dela eta, martxoan antolatuko diren ekintzen barruan egingo da.

Sketch lehiaketa

Euskadiko Kutxak Gazteentzako I. Sketch-lehiaketa antolatu du. Euskara zuzen erabili, istorio bat ongien eszenifikatu eta emaitza horiek lortzeko ahalegin berezia egin dutenek merezimenduzko aipamena egingo zaie. Ikasgela bakoitzak nahi duen gaia jorratu ahal izango du eta honako puntu hauek hartuko dira kontutan: eszenifikazio, euskara erabilera, naturaltasuna eta janzkerak eta dekoratuak. Gogoratu datorren martxoaren 1erako Euskadiko Kutxan egon beharko dira lan hauek, 8 mm.ko bideo zinta batean grabatuta. Irabazlearen izena martxoaren 28an emango da jakitera.

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

IBARRA Garajea S.A.



EBRO NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ASTRONOMIA

UNIBERTSOAREN IDEIA

Historian zehar zenbait zibilizaziok Unibertsoari buruz izan dituzten ideiekin jarraituz, ikus ditzagun adibide batzuk. Honela ikusten zuten unibertsoaren hasiera herri batzuek.

• "Guztiaren hasieran, gauzak, atsedean hartzen etzanda zeuden bukaezinezko gauean: gauak dena besarkatzen zuen sastraka sartein bat bezala"

(Aita Handiaren mitoa, Ertaustraluako Aranda Leinuak)

• "Dena zegoen bare, dena isilean, dena geldirik eta lasai; eta ortzearen lekuak hutsik zeuden".

(Popol Vuh, Maya Quichek)

• "Na Areak eserita zegoen bera bakarrik espazioan, odei bat ezerezean flotatzen den bezala. Ez zuen lorik egiten loa esistitzen ez zelako; ez zen gose, oraindik goserik ez zegoelako. Honela iraun zuen luzaroan ideia bat bururatu zitzaion arte. Bere buruari honela esan zion: Gauza bat egin behar dut."

(Maiaren mitoa, Gilbert uharteak)

Gutxi dakigu aintzinako euskaldunek unibertsoari buruz pentsatzen zutenaz. Beharbada horri buruz gutxi pentsatzen zutelako. Hala ere, "Venus" planetari artizarra deitzen zioten. Hau da, ilunabarra baino lehen artizarra zeruan agertzen zenean ardiak artegian sarteko orduaren saina-lea zen.

Etzunda daukat, baina baieztatu barik, gurdia gurpilean ertzean, piezak estuzeko jartzen zen burdinezko xafra zirkularri "ordea" deitzen ziotela; unibertsoari deitzen erabiltzen zuten hots berbera. Hau honela bada, unibertsoa, zirkularra edo esferikoa zela pentsatzen zuten.

ERNEST BORN

'Hurbil', kultura zentzu zabalean lantzeko asmoz sortutako enpresa

Urte askotan kultur giroko ekintzak antolatu eta bultzatu ondoren, *Kultur Bideetan* esate batera, Enrike Forondak kultur-zerbitzu enpresa bat jarri du martxan, *Hurbil* izenekoa. Enpresa ez da berriberria, duela hiru urte sortu eta 'Ekin euskarari' edo Nafarroako euskarari buruzko erakustaldiak eta ihardunaldiak antolatu baititu, baina orain egituraketa berria hartuko du, kultur-ekintzez gain beste arlo batzuk ere ikutuz.

Euskararen mundua, ekologia eta ingurugiroa, kultur ekintzak eta komunikazioa eta komunikabideen ingururuko ekintzak antolatu eta bultzatzeko asmoz dabilta *Hurbil* enpresakoak. Printzipioz enpresak talde txiki baten oinarrituta funtzionatuko du eta kasu bakoitzean eta beharra dagoen bakoitzean, lan-talde profesionalen zerbitzuak kontratatuko dira.

Lan-taldea handia ez bada ere, esperientzia handikoa da eta oraingoz, azken hiru urteetan egindako bideen antzerakoetan abiatu dira, Arabako euskarari buruzko erakusketa eta Nafarroan an-

tzezten ari den operarekin baitabilta lanean une haueetan. Aurrera begira, Enrike Forondak lasaitasunez eta ondo egindako lanaren eskaintzaz hitzegiten zuen, kalitate handiko lanaz. Filoso-

fia horrekin bat, *Hurbil* enpresa Aretxabaletako Arkarazo auzoko lasaitasunean kokatu da, Ikarisuena baserri eraberrituan, tradizioa eta praktikotasunaren kontzeptuak elkartuta.



Makina bat erakusketa antolatu dute *Hurbil*-en lan egiten dutenek



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

Begoña

lurrindegia
Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

FELIPE
MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

· ESAERA ZAHARRA ·

*Belearen arrautzak
usakumerik ez.*

· JEROGLIFIKOA ·

jao
jeo
jio
jo
juo

Musean

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11			12	
13		14			15		
16				17			
18			19			20	
21						22	

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Esaera zahar. 9. Zaldibar Futbito Txapelketako ekipoa. 10. Eusko Alkartasuna. 11. (Ald.) Hitz grekoa. 12. Lehena eta azkena. 13. Txirrindulari. 16. Barazki arrunta. 17. Mairuen hainbat herrixka izenetan. 18. Bi erromatar erara. 19. Begirada. 20. Infusio mota. 21. Arau. 22. Arabako indar politikoa.

Bertikalak 1. Futbolean atea zaintzen duena. 2. Saldukeria. 3. Musika mota. 4. Hegazti mota. 5. Tokian tokiko izaera berezia. 6. Idi hitz elkartuetan. 7. Norbaitekin harremana izan. 8. Har mota batekoa. 14. Errepikatuz, gorotza. 15. Gipuzkoako ibilgailuetan. 19. Samarioa.

· HOROSKOPOA ·

Aries Zure bizitzako opari eder eta politena jasotzeko zorian zaude.

Taurus Karneta atera duzun arren, aitak ez dizu beti autoa utziko.

Gemini Hasi armairutik aterkia ateratzen, euria laster dator eta.

Cancer Aste honetan ez duzu erorketarik faltako.

Leo Buru galtze bat izango duzu, baina ez da larria izango.

Virgo Amaren enkarguek lanpetuta edukiko zaituzte aste osoan zehar.

Libra Denak egongo dira zuri adarra jostzeko prest, zuk ere esango dituzu zureak.


Scorpio Lurrean topatuko duzun 5.000 PTAKoa ederki etorriko zaizu.

Sagitaris Mutil lagunak kalabazak emango dizkizu.

Capricorn Adiskideengandik ez espe-ro izan laguntza handiegirik.

Aquarius Bidaia edo auto bat irabaziko duzu zozketa batean.

Piscis Ez egin kasurik esaten dizkizuten tontokeria denei. Zuk zeurea egin.



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

• IDOIA MUJIKAREN GOMENDIOA •



Bi liburu gomendatu dizkio Idoiak irakurleari: Erraz irakurtzekoa, "Yolanda Arrietaren 'Badago ala ez dago?' antzerkiA; merkea eta motza, bizkaieraz eta hika, sorgin kontuak kontaktzen dituen liburua". "Denbora gehiago duenarentzat", Jose Luis San Pedroren "La vieja sirena" gomendatzen du Idoiak "argumentua? irakurri eta ikusiko duzue...". Bide batez, AHIZKE-CIMeko Mediateka gomendatzen digu Idoiak, "oporretan ingelesez hitzegiteko arazorik ez edukitzeko, merezi du eta etorri".

• PROGRAMAZIOA •



- 7 Igandea**
8.05 Monterock
8.40 Mondragol
- 8 Astelehena**
1.30 Egurdiko Berriak
1.35 Mondragol
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea: Tequila konexioa
- 9 Asteartea**
1.30 Egurdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATB Pub
10.00 Asteko Zinea: Tequila konexioa
- 10 Asteazkena**
1.30 Egurdiko Berriak
1.35 ATB Pub
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Pareak Jokoan
10.00 Asteko Zinea: Tequila konexioa
- 11 Osteguna**
1.30 Egurdiko Berriak
1.35 Tertulixan
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATBketan
10.00 Asteko Zinea: Tequila konexioa
- 12 Ostirala**
1.30 Egurdiko Berriak
1.35 ATBketan
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Monterock
10.00 Asteko Zinea: Tequila konexioa

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

Jokontik ez.
JEROGIFIKOA
8. Zizarra. 14. Ka. 15. SS. 19. Sm.
SI. 4. Okil. 5. Tipikoa. 6. It. 7. Traiatu.
Bertikalak 1. Aiezain. 2. Traizio. 3. Norma. 22. UA.
16. Aza. 17. Ksar. 18. II. 20. Te. 21.
Horizontalak 1. Asoitiz. 9. Tinki-
GURUTZEGRAMA

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

PUB HAIZEA
arrasate

• **ARTEA** •
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



Etxeko ekipamendu osoa

a, eme... interiores

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

